


UDAL- HONDAKINAK



INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



© Ihobe S.A., 2025ko urria

Argitaratzailea

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila
Eusko Jaurlaritza
Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua, 48011 Bilbo
Tel.: 944 230 743
www.ingurumena.eus • www.ihobe.eus

Edukia

Dokumentu hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko eta Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko talde teknikoek egin dute, Inguru Ingeniariaren laguntza teknikoarekin.

Esker onak

Euskadiko Hondakinak Koordinatzeko Organoko talde teknikoari, azken dokumentuari egindako ekarpen eta berrikuspenengatik.



Liburu honen edukiak, edizio honetan, ondoko lizentziaren babespean argitaratu dira:
Errekonozimendua - Ez-komertziala - Eratorritako obrarik gabe 3.0 Unported, Creative Commons
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES



1. LABURPEN EXEKUTIBOA	3
2. UDAL-HONDAKINEN GARRANTZIA	10
3. ARAUDI ETA PLANGINTZA APLIKAGARRIAK	14
4. ADIERAZLEAK	19
4.1 Bilakaera orokorra	20
4.2 Sorkuntza, gaikako bilketa eta kudeaketa Euskadin	21
4.3 Udal-hondakin nagusiak	26
5. UDAL-HONDAKINEN EGUNGO EGOERA ETA HELBURUAK	31
5.1 Sorkuntza	32
5.2 Gaikako bilketa	34
5.3 Kudeaketa	37
6. ERRONKAK	39
1. erronka. Berrerabilera eta konponketa areagotzea	40
2. erronka. Elikagai-hondakinen inguruan jardutea	41
3. erronka. Tamaina handiko hondakinen kudeaketa hobetzea	42
4. erronka. EEH sistemen aplikazioa berrikustea (Ekoizlearen Erantzukizun Hedatua)	44
5. erronka. Sentsibilizazioa handitzea	46
6. erronka. Jarraipena eta kontrola areagotzea	47
7. erronka. Hondakinen tasa berrikustea	48



7. LAN-ILDOAK	50
8. ONDORIOAK	54
9. ERANSKINAK	56
I. eranskina: Definizioak	56
II. eranskina: Eskumenen banaketa	59
III. eranskina: Araudiaren eta plangintzaren ibilbide historikoa	60
IV. eranskina: Udal-hondakinen osaera	68
V. eranskina: Sorkuntzari eta kudeaketari buruzko datu banakatuak	70
VI. eranskina: Lurralde-plan bakoitzean aurreikusitako ekintzak	74
VII. eranskina: Foru-aldundiek zenbatetsitako aurrekontuak	82

1

LABURPEN EXEKUTIBOA

AURREKARIAK

Euskadiko ingurumenaren egoera orokorra Ingurumen Profil izenekoaren bidez ebaluatzen da aldizka. 2025. urtean, txostenak udal-hondakinak ditu ardatz, azken

hamarkadan beste ingurumen-bektore batzuk landu ondoren, 1. irudian ikus daitekeenez.



1. irudia. Argitaratutako ingurumen-profilak. *Iturria: geuk egina.*

UDAL-HONDAKINEN GARRANTZIA

Azken urteetan, Europak bere lurraldean ez dituen lehengaiak munduko merkatuan lortzeko gero eta zailtasun handiagoak dituen testuinguru batean, udal-hondakinek garrantzi handia hartu dute **baliabide-iturri** gisa.

Garrantzi hori areagotu egiten da udal-hondakinek beste esparru batzuetan duten inplikazioa dela eta. Esparru horien artean, honako hauek aipa daitezke:

- **Klima-aldaketaren aurkako borroka**, hondakin biodegradagarriak dituzten zabortegeiek metanoa isurtzen baitute.
- **Itsas ingurunearen babesa**; ingurune horren kutsadura ibai-arroetan amaitzen duten hondakinak bidegabeki jalkitzeak eragiten du neurri batean.
- **Garapen Jasangarrirako Helburuak** betetzea, batez ere 12. helburua (produkzio eta kontsumo jasangarria), 13. helburua (klimaren aldeko ekintza) eta 14. helburua (itsaspeko bizitza).
- **Enpleguaren sorkuntza**, bai bilketaren eta garraioaren arloan, bai berrerabiltzeko prestaketaren eta birziklatzearen arloan.

Ekarpen hori gauzatzeko, udal-hondakinen **atomizazio** bereizgarria landu beharra dago. Atomizazio hori honako hauetan agertzen da:

- **Sorkuntzan**; herritarrek, saltokiek, zerbitzuen sektoreak eta abarrek hartzen dute parte sorkuntzan.
- **Eskumenen kudeaketan**; honako hauen arteko banaketa egiten da:
 - Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak; plangintzaz arduratzen dira funtsean.
 - Toki-erakundeak (udalak, mankomunitateak eta kuadrillak); bilketa-ereduaren diseinua eta hondakin bakoitza dagokion tratamendu-instalazioan entregatzeari lotutako kostuak hartzen dituzte beren gain.



ARAUDI ETA PLANGINTZA APLIKAGARRIAK

Udal-hondakinen arloan indarrean dagoen **araudia**:

- Hondakinei buruzko 7/2022 Legean oinarrituta dago.
- Frakzio jakin batzuetan (elikagaien, ontzien, pilen/ metagailuen eta aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinetan) aplikatu beharreko araudi espezifiko batekin osatuta dago.

Plangintzaren arloan, Euskadiko Hondakinak Prebenitze-ko eta Kudeatzeko Planaz eta udal-eskumeneko hondaki- nei buruzko foru-planaz gain (guztiak indarrean egongo dira 2030era arte), beste plan eta estrategia batzuk ere aplikatu daitezke hainbat arlotan, hala nola plastikoa, ehun- gaiak, ekonomia zirkularra eta erosketak publiko berdea.

Etorkizunera begira, kontsumitzailearen ahalduztzeari eta konponketari buruzko zuzentarauen transposizioak (2026an) prebentzio-politikak indartzea espero da.

ADIERAZLEAK

Udal-hondakinen arloko adierazle nagusien arabera, 2022an Euskadin:

- 980.711 tona sortu dira, hots, 503 kg biztanleko. Beraz, % 8,22ko beherakada izan da 2010ean sortutako kantidadarekin alderatuta
- Sortzen diren hondakinen % 45,31 biltzen dira gaika.
- Bildutako hondakinen % 42,44tan berrerabilerarako prestatzeko eta birziklatzeko tratamenduak aplikatzen dira.

Ondorengo taulan, 2022. urterako kalkulaturako adierazle nagusiak agertzen dira, 7/2022 Legeak sorkuntzari, gaikako bilketari eta kudeaketari lotuta 2025erako eta hurrengoetarako ezarritako helburuekin batera.

Helburuak	2025	2030	2035	2022					
				EB	Espainia	Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Sorkuntza, 2010. urtearekin alderatuta	-% 13	-% 15		+% 3,33	-% 6,24	-% 8,22	-% 10,53	-% 7,47	-% 8,51
Bilketa bereizia			% 50	-	-	% 45,31	% 39,41	% 39,14	% 58,51
Berrerabiltzeko prestaketa + birziklatzea	% 55	% 60	% 65	% 48,57	% 38,62	% 42,44	% 38,92	% 35,93	% 55,19
Berrerabiltzeko prestaketa	% 5	% 10	% 15	% 48,57	% 38,62	% 0,58	% 0,62	% 0,53	% 0,65

EGUNGO EGOERA

Aurreko taulan islatutako informazioaren arabera, orain arte egindako ahaleginak gorabehera, ezarritako helburuak betetzeko bidean aurrera egiten jarraitu behar da oraindik.

Era berean, datozen urteetan helburu horiek gogortu eta berri batzuk sartuko direnez gero (gaikako bilketari eta berrerabiltzeko prestaketari lotuak), jarduteko neurri gehiago eta irismen handiagokoak hartu beharko dira.

ERRONKAK

Hamarkada honi geratzen zaion aldian aurre egin beharreko 7 erronka nagusi identifikatu dira. Erronka horiei ekiteak lege-helburu aplikagarrien betetze-maila hobetzeko aukera emango du, ondorengo taulan ikus daitekeenez:

Erronkak		Lotutako helburuak			
		Prebenitzea	Biltzea	Berrerabiltzeko prestatzea	Birziklatzea
1.E	Berrerabilera eta konponketa areagotzea				
2.E	Elikagai-hondakinen inguruan jardutea				
3.E	Tamaina handiko hondakinen kudeaketa hobetzea				
4.E	EEH sistemen aplikazioa berrikustea				
5.E	Sentsibilizazioa handitzea				
6.E	Jarraipena eta kontrola areagotzea				
7.E	Hondakinen tasa berrikustea				

1. erronka

Berrerabilera eta **konponketa** bi zutabe nagusi dira produktuen balio-bizitza luzatzeko eta, beraz, 2010. urtearekin alderatuta, hondakinen sorkuntza murrizteko.

2. erronka

Elikagai-hondakinen arloan jardutearen bidez, hondakin horien sorkuntza murriztu ahal izango da (giza kontsumorako dohaintza lehenestearen bidez, araudiak eskatzen duenari jarraikiz), eta haien segregazioa sustatu ahal izango da (eta hori lagungarria izango da gaikako bilketaren ehunekoa eta konpostatze bidezko birziklatzea handitzeko).

3. erronka

Berrerabiltzeko prestaketaren arloan planteatzen den lege-eskakizunari aurre egiteko, **tamaina handiko hondakinen** arloan jardun beharko da. Izan ere, horrelako tratamendu bat jaso dezaketen hondakinen artean, tamaina handikoak dira jarduteko aukerarik handiena eskaintzen dutenak. Toki-erakundeek frakzio hori biltzeko erabilitako ereduaren berrikuspena funtsezkoa izango da bandalismoak edo baldintza meteorologikoei hondakin horiek berrerabiltzeko prestatzeko aukeretan duten eragina murrizteko.

4. erronka

Ekoiizlearen Erantzukizun Hedatuko (EEH) sistemaren mendeko produktuen kasuan, produktua merkaturatzen duten enpresek hartu behar dute beren gain produktu horren kudeaketa, haren balio-bizitza amaitu eta hondakin bihurtzen denean. Ohikoena betebeharrak hori Ekoiizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektibo (SCR) baten bitartez kolektiboki hartzea ohikoa denez, beharrezkoa da toki-erakundeek SCR horiek beren betebeharrak behar bezala beren gain har ditzaten eskatzea, are gehiago kontuan hartuta orain arte etxeko ontziei, pilei/metagailuei eta aparatu elektriko eta elektronikoei bakarrik aplikatzen zitzaizkien EEH sistema hori, merkataritza-ontzietara eta, epe laburrean, ehun-gaietara eta altzarietara/tresnetara zabalduko dela (udal-hondakinei dagokienez).

5. erronka

Sentsibilizazioa zeharkako erronka bat da, biltzeko bide mota oro edo tratamendu-azpiegiturak gaitzea ez baita oso baliagarria ekoiizleek (herritarrek, saltokiek eta merkataritza-sektoreak) prebentzio-ohiturarik eta hondakinak bereizita uzteko ohiturarik hartzen ez badute.

6. erronka

Jarraipena eta **kontrola** ere lagungarriak dira helburu guztiak betetzeko. Izan ere, datuak ematen dituzte, hobetzeko alderdiak identifikatzen dituzte eta jarduketak berriz bideratzeko aukera ematen dute. Hasierako izaera didaktikoak eraginik ez badu, kontrola dagokion zehapen-prozedurara bideratu beharko da, ekoiizle batzuen ez-betetze errepikatuek zigorgabetasun-sentsazio orokorra sor ez dezaten.

7. erronka

Neurri horiek guztiak aplikatzeko, finantzaketa nahikoa lortu behar da, eta lotutako gastu eta diru-sarrera guztiak (bilketa, kudeaketa, zaintza, sentsibilizazioa eta abar) kontuan hartuko dituen **hondakin-tasa** ez-defizitario bat izateko eskatzen duen lege-betekizunaren bidez lor daiteke finantzaketa hori. Lege-betekizun horrek tasak sorkuntzaren arabera ordaintzeko sistemen ezarpena ahalbidetu dezan eskatzen duenez gero, erronka hori lagungarria izango da, halaber, prebentzio-helburua betetzeko. Izan ere, tasaren zenbatekoa sortutako kantitatearen arabera denean (zuzenean edo zeharka) ekoiizleek hondakin gutxiago sortzea espero da.

LAN-ILDOAK

Planteatutako erronkei aurre egiteko, eremu geografiko bakoitzean (Autonomia Erkidegoan, lurraldean eta toki-eremuan) hamarkadarako ezarritako lan-ildoak hondakinak prebenitu eta kudeatzeko bidezko planetan eta programetan jasota daude.

Autonomia Erkidegoan



INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



Eusko Jaurlaritzak, zuzenean edo Ihobe edo Erika Fundazioa bezalako erakunde elkartuen bidez, honako hauek egiten jarraituko du:

- Eragileak koordinatzen, hainbat fororen bidez (hala nola Hondakinak Koordinatzeko Organoaren eta Udalsarea 2030 izenekoaren bidez).



udalsarea 2030
udalerri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles

- Baliabide teknikoak sortzen, hala nola orain arte landutako *"Euskadin elikagaien soberakinak dohaintzan emateko orientazio-gida"*, *"Udal-hondakinaren tasak lantzeko gida"* edo *"EAEko udal-hondakinaren kontabilitate-gida"*.



- Sentsibilizazio-elementu jakin batzuk kudeatzen, hala nola Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea eta zabor solteen inguruko Let's Clean Up kanpaina.





Lurralde-mailan

Hiru foru-aldundiek beren jarduketa-ildoekin jarraituko dute honako arlo hauetan:

- Toki-erakundeekiko koordinazioa, jardunbide egokien sustapena edo esperientzia arrakastatsuak barnean hartuta.
- Sentsibilizazioa, batez ere berrerabileraren, konponketaren, elikagai-xahuketaren, ekoizle handien eta abarren arloetan.
- Hainbat tratamendu-azpiegituraren gaikuntza, batez ere tamaina handiko hondakinen eta biohondakinen kasuan.




Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Toki-mailan


5.000 biztanletik gorako udalerri bakoitzak onartu behar dituen hondakin-programen bitartez, udalen, mankomunitateen eta kuadrillen jarduketak honako hauek izango ditu ardatz:

- Sorkuntzaren araberako ordainketarantz aurrera egitea ahalbidetuko duten bilketa-eredu efizienteagoen egituraketa.
- Jarraipenera eta kontrolera bideratutako baliabideen gehikuntza.
- Aplikatu beharreko indarreko araudian eskatutakoarekin bat etorriko diren hondakin-tasen onarpena. EEH sistema merkataritza-ontzietan, ehun-gaietan eta altzari eta tresnetan eraginkortasunez aplikatzen den heinean berrikusi beharko dira tasa horiek.





UDAL-HONDAKINEN GARRANTZIA



Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera, **udal-hondakintzat** hartzen dira:

- Etxeetan bildutako hondakin nahasiak eta bereizita bildutakoak, barnean direla papera eta kartoia, beira, metalak, plastikoak, bio-hondakinak, zura, ehunkiak, bilgarriak, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak, pilen eta metagailuen hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta tamaina handiko hondakinak, koltxoak eta altzariak barne.
- Beste jatorri batzuetako hondakin nahasiak eta bereizita bildutakoak, baldin eta etxeko hondakin izaeraren eta osaeraren antzekoak badira. Beste iturri horien artean, zerbitzuen sektorea eta industria-sektorea daude.

PAPERA KARTOIA BEIRA
METALAK PLASTIKOAK
BIO-HONDAKINAK ZURA
EHUNKIAK BILGARRIAK
APARATU ELEKTRIKO ETA
ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK
PILEN ETA METAGAILUEN HONDAKINAK
ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK
TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK
KOLTXOIAK ALTZARIAK

Bai

Definizio horretan, ez dira sartzen honako hauek:

- Ekoizpenetik, nekazaritzaetik, basogintzaetik edo arrantzaetik datozen hondakinak.
- Hobi septikoetatik, estolderia-saretik eta hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen hondakinak –araztegiko lohiak barne–.
- Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak.
- Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak.

HONDAKINETATIK ERATORRITAKOAK:

EKOIZPENA NEKAZARITZA ARRANTZA
BASOGINTZA ERAISPENA ERAIKUNTZA
ESTOLDERIA-SAREA HOBI SEPTIKOAK
HONDAKIN-URAK TRATATZEKO
INSTALAZIOAK
BALIO-BIZITZAREN AMAIERAN
DAUDEN IBILGAILUAK

Ez




Egungo testuinguruan, udal-hondakinek garrantzi handia hartu dute hainbat esparrutan egiten duten ekarpenagatik.

Duela hamarkada batzuk okerreko kudeaketaren ondoriozko ingurumen-problematikari aurre egiteko beharrak ematen zion garrantzia hondakin mota horri, baina azken urteetan gora egin du **baliabide-iturri** gisa duen interesak, Europak bere lurraldean ez dituen lehengaiak munduko merkatuan lortzeko gero eta zailtasun handiagoak dituen testuinguru batean.

Ilido horretan, bereziki nabarmentzen dira pilen, metagai-luen eta aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinetan dauden **metal arraroak**. Merkatuan duten balioa gora egiten ari da egunetik egunera. Izan ere, haien eskaintza mugatua da, eta eskaria gero eta handiagoa, ezinbestekoak baitira osagai elektronikoak, bateriak eta telefono mugikorretan, ordenagailuetan, ibilgailu elektrikoetan eta beste ekipamendu teknologiko askotan dauden beste elementu batzuk fabrikatzeko.

Bestalde, balio ekonomiko txikiagoa badute ere, ez zaie garrantzia kendu behar udal-hondakinetan dauden beste material batzuei. Izan ere, material horien balorizazioa lagungarria da baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko eta, horren ondorioz, ekonomia zirkularreko eredu bat sustatzeko:

- Biltzeko kartoia edo altzarien edo enbalajeen egurra berreskuratuz gero, zuhaitz gutxiago mozten dira.
- Edari-latetan dagoen aluminioa edo kontserbetako tapetan eta latetan dagoen burdina balorizatzeak metal horiek naturatik erauzteko beharra murrizten du.
- Bilgarri plastiko birziklagarriak berreskuratzeak petrolio prozesatzeko beharra minimizatzen du.



“EBk bizkortu egin behar du hazkunde birsortzailearen ereduranzko trantsizioa, planetari hartatik hartzen duena baino gehiago itzuliko diona, baliabideen kontsumoa planetaren mugen barruan kokatzeko bidean aurrera egin behar du, eta, horretarako, datorren hamarkadan kontsumo-aztarna murrizteko eta material zirkularraren erabilera-tasa bikoizteko ahalegina egin behar du”.

Ekonomia zirkularrerako ekintza-plan berria: Europa garbiago eta lehiakorrago baten alde (2020)

Udal-hondakinen inguruko politikak lagungarriak dira, halaber, beste ingurumen-erronka batzuetan arrakasta lortzeko (**klima-aldaketaren aurkako borrokan**, adibidez). Ildo horretan, udal-hondakinak berotegi-efektuko gasen emisio-iturri lausoak dira, nagusiki hondakin biodegradagarriak biltzen dituzten zabortegetan isuritako meta-noagatik. Emisio hori era esanguratsuan murriztu daiteke hondakin biodegradagarriak zabortegetan ez uzteko politikak sustatzearen bidez, adibidez.

Bestalde, udal-hondakinak behar bezala kudeatuz gero, hondakin horiek ez dira ibai-arroetara eta, beraz, itsasora iristen, eta horrek **itsas ingurunea babesteko** helburuak lortzen laguntzen du.

Zeharka, aztertutako hiru esparru horiek (ekonomia zirkularraren sustapena, klima-aldaketaren aurkako borroka eta itsas ingurunearen babesa) lagungarriak dira 2030 Agendako **Garapen Jasangarrirako Helburuak** betetzeko, batez ere 12. helburua (produkzio eta kontsumo jasangarria), 13. helburua (klimaren aldeko ekintza) eta 14. helburua (itsaspeko bizitza).

Azkenik, udal-hondakinen inguruko politikek **enplegua sortzen** laguntzen dute sektore jakin batzuetan, hala nola bilketari, garraioari, berrerabiltzeko prestaketari eta birziklatzeari lotutako sektoreetan.

Ekarpen horiek guztiak gauzatzeko, udal-hondakinen **atomizazio** bereizgarria landu beharra dago. Atomizazio hori sorkuntzan (herritarrek, saltokiek, zerbitzu-sektoreak eta abarrek parte hartzen dute) zein eskumenen kudeaketan agertzen da, non:

- Udalak, mankomunitateak eta kuadrillak bilketaz, garraioaz eta tratamenduaz arduratzen dira, baita 5.000 biztanletik gorako toki-erakundeen kudeaketa-programen onarpenaz ere.
- Foru-Aldundiek udal-hondakinei buruzko foru-planak onartzen dituzte; plan horiek hondakin horien inguruko lurralde historikoko esparru-programazioa garatzen dute.
- Eusko Jaurlaritzak Euskadiko hondakinak prebenitu eta kudeatzeko Plana onartzen du, udal-hondakinak barnean hartuta.

Erantzukizun horiez gain, toki-erakundeek beste batzuk dituzte udal-hondakintzat hartzen ez diren, baina udal-eskumeneko hondakinak diren beste korrante batzuen inguruan. Adibidez, **amiantoaren** kasua aipa daiteke. Korrante horri dagokionez, hondakinei buruzko 7/2022 Legearen hamalagarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, Udalek, 2023ko apirilaren 10erako:

- Amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen **errola** bat egingo dute.
- Amiantoa kentzea planifikatuko duen **egutegi** bat landuko dute. Amiantoa erretiratzeko instalazio eta kokalekuen lehentasuna ezartzerakoan, kontuan izango dira arrisku-maila eta biztanle kalteberenen esposizioa. Nolanahi ere, arrisku handieneko instalazio eta kokaleku publikoek 2028rako kudeatuta egon beharko dute.
- Errola eta egutegia publikoak izango dira, eta autonomia-erkidegoetan eskumena duten osasun-, ingurumen- eta lan-arloko agintariei bidaliko zaizkie. Agintari horiek ikuskatu egin beharko dute, eta egiaztatu, bakoitzak bere erkidegoan, amiantoa erretiratu eta kudeatzaile baimendu bati bidali zaiola.




UDAL-HONDAKINEN GARRANTZIA



Baliabide-iturriak dira, ekonomia zirkularrean laguntzen baitute.



Klima-aldaketa aurre egiteko aukera ematen dute, zabortegean hondakin organiko gutxiago uztean murriztu egiten baita metanoaren kontrol gabeko emisioa.



Itsas ingurunea babesten laguntzen dute bilketa egokia egiten denean eta sakabanatzen ez direnean.



Garapen Jasangarriako Helburuak betetzen laguntzen dute.



Bilketa-, garraio- eta kudeaketa-zereginen lotutako enplegua sortzen dute.

2. irudia. Udal-hondakinen garrantzia. *Iturria: geuk egina.*

3 ARAUDI ETA PLANGINTZA APLIKAGARRIAK

Europar Batasunak hondakinen inguruan zuen kezka 1975ean gauzatu zen, **Hondakinei buruzko 75/442 Esparru Zuzentaraua** onartu zenean.

Lege-testu horrek gaur egun guztiz indarrean dauden hainbat alderdi identifikatu zituen:

- Hondakinak berreskuratzearen eta berreskuratze-materialak erabiltzearen garrantzia baliabide naturalak babesteko.
- Prebentzioaren, berrerabileraren eta berreskuratze material edo energetikoaren aldeko apustua.
- "Nork kutsatu, hark ordaindu" printzipioaren aplikazioa, hondakinen ustiapenak estali gabeko kostuen zatiaren inguruan jarduteko.

Harrezkero, lege-testu eta plangintza-tresna ugari onartu dira Europan, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan, honako helburu hauekin:

- Lehen hamarkadetan, kudeaketa-instalazioetarako baimena eta ezaugarri bereizgarri gisa kantitatea (ontziak) edo arriskugarritasuna (pilak eta aparatu elektriko eta elektronikoak) duten korronteei zuzendutako arreta espezifiko bat bermatzea.
- Ondoren, hondakinen hierarkia (3. irudia) eta ekonomia zirkularra sustatzea.



3. irudia. Hondakinak kudeatzeko hierarkia. Iturria: geuk egina.

Gaur egun, udal-hondakinen araudi- eta plangintza-elementuak honako hauek dira:

2009	• 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena eta balorizatu daitezkeen hondakinak hondakindegietan batean onartzea berariaz debekatzen duena. Autonomia Erkidegoko Dekretu hori gaur egun Europan eta Estatuan indarrean dauden araudietara egokitu beharra dago oraindik, eta, beraz, ezin dira aplikatu lege-esparrurik berrienarekin kontraesanean dauden alderdiak.
2015	• 110/2015 Errege Dekretua, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa, arloko Europako azken Zuzentarauaren transposizioaren bidez frakzio horri buruzko Estatuko araudia eguneratzen duena. • 710/2015 Errege Dekretua, pila eta metagailuei eta horien hondakinei buruzkoa, hondakin horiei dagokienez aurrekoaren antzera jotzen duena.
2017	• Arabako hiri-hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2017-2030.
2018	• Plastikorako Europako estrategia.
2019	• Europako Itun Berdea. • Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030. • Gipuzkoako hiri-hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldiko Plan Orokorra.
2020	• Ekonomia zirkularrerako Ekintza Plana: Europa garbiago eta lehiakorrago baten alde. • Espainiako Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030. • 646/2020 Errege Dekretua, hondakinak zabortegetan utziz ezabatzearen arloan Europako planteamendu berriak Estatuan txertatzen dituena.
2021	• 27/2021 Errege Dekretua, pila eta metagailuei buruzko 106/2008 Errege Dekretua eta aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretua aldatzen dituena. • Euskadiko hondakinak prebenitu eta kudeatzeko Plana 2030 (aurrerantzean, hondakinen plan autonomikoa). • Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako Programa. • 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, erosketa publiko berdearen inguruan hondakinen esparrua eraginpean hartzen duten betebeharrak espezifikoak ezartzen dituena.
2022	• Ehun-gaien zirkulartasun eta jasangarritasunerako Europako Estrategia. • 7/2022 Legea, hondakinei buruzkoa; udal-hondakinen gaineko afekzio nagusiak 1. taulan jasota daude. • 1055/2022 Errege Dekretua, ontziei eta ontzien hondakinei buruzkoa, Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuaren (EEH) sistemaren aplikazioa merkataritza- eta industria-ontzietara zabaltzen duena.

2024	• Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (PEMAR) 2024-2035. • Bizkaiko toki-eskumeneko hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan Integrala 2024-2030. • Europako 2024/1781 Erregelamendua, produktu jasangarrien diseinu ekologikoari buruzkoa; lehentasunezko lehen 11 produktuen artean, udal-hondakin bihurtzen diren hainbat gai biltzen ditu: – Ehun-gaiak, batez ere jantziak eta oinetakoak. – Altzariak, koltxoak barne. – Informazioaren eta komunikazioaren teknologiako produktuak eta beste gai elektroniko batzuk. • 2024/825 Zuzentaraua, kontsumitzaileen ahalduntzeari buruzkoa; Estatuko lege-esparrura eraman behar da 2026/03/27a baino lehen. • 2024/1799 Zuzentaraua, ondasunak konpontzeari buruzkoa; Estatuko lege-esparrura eraman behar da 2026/07/31 baino lehen.
2025	• 1/2025 Legea, elikagaien galera eta xahuketari buruzkoa; 7/2022 Legean hondakin mota horretarako onartutako prebentzio-helburuei eta giza kontsumorako dohaintzaren lehenespenari eusten die. • 2025/40 (EB) Erregelamendua, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa.



Azpimarratu beharra dago **Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuaren (EEH) pixkanakako aplikazioa hainbat korrontetan**. Sistema horri jarraikiz, gai baten ekoizleak bere gain hartu behar du gai horren balio-bizitza amaitzean sortzen den hondakinaren kudeaketaren finantza-erantzukizuna (edo finantza- eta antolaketa-erantzukizuna).

Horrek esan nahi du hondakin horren kudeaketaren kostua ez dagokiela toki-erakundeei, gaiaren ekoizleei baizik. Logikoa denez, ekoizleek erosleei jasanaraziko diete kostu hori.

Udal-hondakinen zirkuituan amaitzen duten gaien artean, sistema hori etxeko ontziei, pilei/metagailuei eta aparatu elektriko eta elektronikoei aplikatzen zaie duela hainbat urtez geroztik. Duela gutxi merkataritza-ontzietan aplikatzen hasi dira, eta aurki sistema horren arau-garapena ehun-gaietara eta altzari eta tresnetara zabaltzea espero da.

Horrek esan nahi du ia udal-hondakin guztiek bete beharko dutela EEH sistema, biohondakinak, sukaldeko olioak, garbiketa-hondakinak (bide eta parkeen garbiketakoak) eta eta errefusa osatzen duten beste hondakin batzuk (adibidez, hondakin zelulosiko sanitarioak) izan ezik.

Gaur egun hondakinen arloan aplikatu beharreko oinarritzko lege-testua 7/2022 Legea denez gero, jarraian ageri den 1. taulan jasotzen dira lege horrek udal-hondakinei eragingo dizkien afekzio nagusiak.

7/2022 LEGEAREN ERAGIN NAGUSIAK UDAL-HONDAKINEI DAGOKIENEZ			
“Udal-hondakinak” kontzeptua sartzen du, helburu espezifikoak kalkulatzeko. Definizio berri horrek esplizituki baztertzen ditu eraikuntzako obra txikietatik eta etxeko konponketetatik eratorritako hondakinak, baita abandonatutako ibilgailuak ere (ibilgailu horiek etxeko hondakinen definizioan sartzen dira).			
Prebentzioari, bilketari eta tratamenduari lotutako helburu kuantitatibo berriak ezartzen ditu:			
Helburuak	2025	2030	2035
Sorkuntza murriztea (2010. urtearekin alderatuta)	-% 13	-% 15	
Hondakinak bereizita biltzea			% 50
Berrerabiltzeko prestaketa + birziklatzea aplikatzea	% 55	% 60	% 65
Berrerabiltzeko prestaketa aplikatzea	% 5	% 10	% 15
Honako hauek sartzen ditu ekonomia zirkularra sustatzeko zerga-neurri gisa: • Plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga bat. • Hondakinak zabortegietan uztearen, errausketaren eta baterako errausketaren gaineko zerga bat.			
Elikagai-hondakinen eta biohondakinen arloko neurri espezifikoak ezartzen ditu. Haien artean, honako hauek nabarmentzen dira: • 2030. urterako, txikizkako salmentaren eta kontsumitzaileen per capita elikagai-hondakinak % 50 murriztea, 2020an sortutakoekin alderatuta. • 2030. urterako, produkzio- eta hornidura-kateetako elikagaien galerak % 20 murriztea, 2020ko galerekin alderatuta. • Biohondakinek izan ditzaketen inegokien gehieneko ehunekoa % 20 (2022an) eta % 15 (2027an) murriztea.			
Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko (EEH) sistemaren erregulazio orokorrean sakontzen du, eta ehun-gaietara eta altzarietara eta tresnetara zabaltzen du.			
Toki-erakundeei honako betekizun hauek eskatzen dizkie, besteak beste: • Biohondakinen, sukaldeko olioaren, ehun-gaien, etxeko hondakin arriskutsuen eta tamaina handiko hondakinen nahitaezko gaikako bilketa. • Hondakinak kudeatzeko programa 5.000 biztanletik gorako erakundeentzat. • Hondakin-tasa ez-defizitarioa (ezta soberazkoa ere), sortutakoaren arabera ordaintzeko sistemak ezarri ahal izateko			

1. taula. 7/2022 Legearen eragin nagusiak udal-hondakinei dagokienez. Iturria: geuk egina.



4

ADIERAZLEAK

Aurreko atalean azaldutako lege-helburu nagusiak kontuan hartuta, udal-hondakinen arloko adierazle nagusiek honako hauek dituzte ardatz:

- Sorkuntza, 2030. urtea baino lehen 2010. urtearekin alderatuta % 15 murrizteko helburua betetzen den ebaluatzeko.
- Gaikako bilketa; izan ere, urrun dagoen lege-helburua bada ere, biderik egokienetako bat da kudeaketa-helburuak betetzeko.
- Kudeaketa aplikatua, batez ere berrerabiltzeko prestaketaren eta birziklatzearen arloan, horiek baitira lege-eskakizunen eragina jasaten duten bi tratamenduak.



Atal honetan, honako analisi hauek egingo dira:

- Sorkuntzak 2010etik 2022ra arte (hots, Autonomia Erkidegoko informazio estatistikoa eskaintzen duen azken urtera arte) izan duen bilakaeraren lehen analisi orokorra (Europakoa, Estatukoa eta Euskadikoa).
- Euskadiko eta lurralde historikoetako 2022ko egoeraren bigarren analisi xehatua.
- Hirugarren analisian, gehien sortzen diren lau hondakinak (biohondakinak, ontzi arinak, papera/kartoia eta beira) eta bosgarren frakzioa (ehun-gaiak) hartu dira kontuan. Bosgarren frakzio hori aldatu egingo da EEH sistema aplikatzean.

4.1 BILAKAERA OROKORRA


Urteetan hartutako neurriek udal-hondakinen sorkuntza-eta kudeaketa-baldintzak hobetu dituzte, baina erritmo desberdinak detektatu dira, aztertutako unitate geografikoaren arabera.

1. grafikoan ikus daitekeenez, kudeaketa mota desberdinen bilakaera-kurbak (eta, kudeaketa horien guztien batura gisa, guztizko sorkuntzarenak) desberdinak dira Europan, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan:

- **Europar Batasunean**, sorkuntzak egonkor samar jarraitu du biztanleko 500 kg ingururekin (biztanleko 503 kg 2010ean; biztanleko 513 kg 2022an), eta zabortegetan utzitako hondakinen kantitateak behera egin du (biztanleko 178 kg 2010ean; biztanleko 118 kg 2022an).
- **Espainian**, estatistika ofizialaren arabera per capita sorkuntzak behera egin du pixkanaka

(biztanleko 510 kg 2010ean; biztanleko 467 kg 2022an), baita zabortegetan utzitako hondakinen kantitateak ere (biztanleko 318 kg 2010ean; biztanleko 235 kg 2022an). Azken hobekuntza hori gorabehera, zabortegetan utzitako hondakinen tasa EBn erregistratutakoaren bikoitza da.

- **Euskadin**, Europar Batasunean bezala, sorkuntza biztanleko 500 kg ingurukoa izan da urtean (biztanleko 492 kg 2010ean; biztanleko 503 kg 2022an), baina oso hobekuntza esanguratsua gertatu da hondakinen hierarkia aplikatzean. Izan ere, biztanleko 243 kg utzi ziren zabortegetan 2010ean, eta biztanleko 89 kg 2022an (datu hori EBkoa eta Estatukoa baino txikiagoa da –biztanleko 118 eta 235 kg, hurrenez hurren–). Egoera hori balorizazio energetikoaren ondorioa da neurri batean.



1. grafikoa. Europar Batasuneko, Espainiako eta Euskadiko sorkuntzaren eta kudeaketaren bilakaeraren konparazioa.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren hiri-hondakinen 2022ko estatistika.

4.2 SORKUNTZA, GAIKAKO BILKETA ETA KUDEAKETA EUSKADIN

Aurreko atalean 2010etik 2022rako bilakaera orokorra azaldu ondoren, 2022. urteko (hots, Autonomia Erkidegoko informazio estatistikoa eskaintzen duen azken urteko) egoera aztertuko dugu zehatz-mehatz.


Sorkuntza

2022. urtean, udal-hondakinen sorkuntza 980.711 tonara iritsi da Euskadin, eta etxeko eta merkataritzako hondakinen guztizko sorkuntzaren (1.106.050 tona) eta eraikuntzako obra txikietatik eta etxeko konponketetatik eratorritako hondakinen artean dagoen alde gisa kalkulatzen da. Izan ere, azken frakzio hori etxeko hondakinen definizioaren barruan dago, ez, ordea, udal-hondakinen definizioaren barruan.


2. grafikoan ikus daitekeenez, sorkuntza 2010ekoa baino % 8,22 txikiagoa izan da.

3. grafikoaren arabera, Bizkaian udal-hondakin guztien % 54,81 sortzen dira, Araban % 13,49 eta Gipuzkoan % 31,70.

Horrek esan nahi du azken bi lurralde horien ekarpena beren ekarpen demografikoa baino txikixeagoa dela (% 15 eta % 33, hurrenez hurren). Hala ere, kontuan hartu behar da udal-hondakinetan, herritarren sorkuntza ez ezik, beste esparru batzuei (hala nola saltokiei, zerbitzuen sektoreari eta kirol- edo kultura-ekitaldiei) lotutako sorkuntza ere sartzen dela, eta, beraz, demografiaren erreferentzia (per capita sorkuntzaren azterketen berezkoa) beti ez da erabakigarria izaten.



2. grafikoa. Udal-hondakinen sorkuntzaren bilakaera Euskadin, 2010etik 2022ra bitartean.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa. Oharra: Lerro laranja adierazten du 2025erako 7/2022 Legeak eskatzen duen helburua, 2010. urtearekin alderatuta, sorkuntza murriztea dela.



3. grafikoa. Sorkuntzaren banaketa lurralde historikoen artean. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

Osaera



Udal-hondakinen osaeran, frakzio nagusia biohondakinen da (308.036 t, % 31,41), eta, haren atzetik, papera/kartoia (186.402 t, % 19,01), ontzi arin plastikoak eta metalikoak (124.354 t, % 12,68) eta beirazko ontziak (86.131 t, % 8,78) kokatu dira.



Gaikako bilketa

Sortutako hondakin guztien % 45,31 (444.407 tona) gaika bildu dira.

4. grafikoan ikus daitekeenez, Gipuzkoaren ekarpena (% 58,51, 181.906 t) Arabakoa (% 39,41, 52.145 t) eta Bizkaikoa (% 39,14, 210.356 t) baino nabarmen handiagoa da.



4. grafikoa. Udal-hondakinen gaikako bilketa Euskadin eta 3 lurralde historikoetan. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa. Oharra: Ierro laranjak 7/2022 Legeak 2035. urterako eskatzen duen gaikako bilketaren helburua adierazten du (% 50).

Kudeaketa


2. taulan eta 5. grafikoan islatzen denez:
- 2022. urtean, Euskadik **berrerabilerarako prestatzeko** tratamenduak aplikatu ditu kudeatu dituen hondakinen % 0,58tan. Lurraldeei dagokienez, ehuneko hori % 0,65era iritsi da Gipuzkoan, % 0,62ra Araban eta % 0,53ra Bizkaian.
 - Bestalde, **berrerabilerarako prestatzeko eta birziklatzeko** (konpostatzea eta beste birziklatze material bat) tratamenduen aplikazioa batera baloratuz gero, ehunekoa % 42,44ra iritsi da Autonomia Erkidegoan (% 55,19ra Gipuzkoan, % 38,92ra Araban eta % 35,93ra Bizkaian).
 - **Balorizazio-tratamendu** guztiak (**balorizazio energetikoa barne**) batera aztertuta ikus daitekeenez, tratamendu horiek kudeatutako udal-hondakin guztien % 72,80tan aplikatu dira. Azpimarratu beharrekoak dira Gipuzkoako eta Bizkaiko balioak (% 81,10 eta % 76,05, hurrenez hurren), balorizazio energetikoaren arloan dituzten azpiegiturei esker lortuak. Araban, berriz, ehunekoa % 40,09ra iritsi da.
 - Euskadin 2022. urtean **ezabatzeko** prozesuak (**zabortegian uzteko aukera barne**) izan dituzten hondakinak guztien % 16,95 dira, baina alde handiak ikusi dira lurralde historikoen artean (Araba: % 48,71; Bizkaia: % 15,60; Gipuzkoa: % 5,77).
- Euskadiko urteko balantzea amaitzeko, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:
- Sortutako hondakinen pisuaren zati bat tratamendu-prozesuan galtzen da (daukaten uraren lurrunketa edo lixibiazioaren ondorioz, adibidez).
 - Azken tratamendua egin arte biltegiratutako partidak bereiz kontabilizatzen dira¹.

Esparrua	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Ton	%	Ton	%	Ton	%	Ton	%
Berrerabiltzeko prestatketa	817	% 0,62	2.865	% 0,53	2.022	% 0,65	5.703	% 0,58
Konpostatzea	10.922	% 8,26	19.066	% 3,55	53.607	% 17,24	83.595	% 8,52
Birziklatzea	39.752	% 30,05	171.208	% 31,85	115.963	% 37,30	326.923	% 33,34
Balorizazio energetikoa	1.546	% 1,17	215.601	% 40,11	80.547	% 25,91	297.693	% 30,35
Galerak	14.826	% 11,21	43.830	% 8,15	24.219	% 7,79	82.875	% 8,45
Biltegiratzea	0	% 0,00	1.056	% 0,20	16.626	% 5,35	17.683	% 1,80
Ezabaketa	64.444	% 48,71	83.868	% 15,60	17.928	% 5,77	166.240	% 16,95
Guztira	132.307	% 100,00	537.493	% 100,00	310.912	% 100,00	980.711	% 100,00





2. taula. Tratamendu motaren araberako kudeaketa Euskadin eta 3 lurralde historikoetan. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

6. grafikoaren arabera, Gipuzkoa da kudeaketa-tratamenduen Europako banaketarekin antzekotasun handiena duen lurralde historikoa.

¹ 2024tik aurrera, “EAEko udal-hondakinen kontabilitate-gidak” desberdin kontabilizatzen ditu tratamenduaren zain biltegiratutako partidak.



5. grafikoa. Udal-hondakinen kudeaketa Euskadin eta 3 lurralde historikoetan. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.
Oharra: Lerro laranjak 7/2022 Legeak 2025erako eskatzen duen berrerabiltzeko prestaketarako + birziklatzerako prestatzeko helburua erakusten du.




6. grafikoa. Europar Batasuneko, Espainiako, Euskadiko eta 3 lurralde historikoetako 2022ko kudeaketaren konparazioa.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren hiri-hondakinen 2022ko estatistika.

Oharra: Lerro laranjak 7/2022 Legeak 2025erako eskatzen duen berrerabiltzeko prestaketarako + birziklatzerako prestatzeko helburua erakusten du.

4.3 UDAL-HONDAKIN NAGUSIAK

Ondoren, nagusiki sortzen diren lau hondakinak (biohondakinak, ontzi arinak, papera/kartoia eta beira) aztertuko ditugu, baita ehun-hondakinak ere, aurki EEH sistema aplikatuko baita hondakin horietan.




Ontzi arinak

Ontzi arinek bolumen handia, baina dentsitate txikia dute, eta 124.354 tonara baino ez dira iritsi Euskadin (308.036 tonara aurreko atalean aztertutako biohondakinak). Horrek esan nahi du per capita sorkuntza 57 kilogramokoa izan dela biztanleko eta urteko. Batezbesteko hori Arabak baino ez du gainditu (65 kg biztanleko).


Gaikako bilketaren batez besteko indizea % 43,25ekoa izan da. Balio horrek gora egin du Gipuzkoako portaeraren ondorioz. Izan ere, sortutako ontzien % 60,39 bereizita bildu dira lurralde horretan (% 39,26 Araban eta % 33,48 Bizkaian).

Biohondakinen kasuan bezala, gaikako bilketaren indizeak aplikatutako tratamendu nagusia baldintzatu du: ezabaketa Araban (% 55,15), balorizazio energetikoa Bizkaian (% 36,18) eta birziklatzea Gipuzkoan (% 47,83).


Sorkuntza



Gaikako bilketa



Kudeaketa



8. grafikoa. ONTZI ARINEN HONDAKINEN sorkuntza, gaikako bilketa eta kudeaketa Euskadin. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

Papera/kartoa


2022. urtean, paperaren eta kartoiaren hondakinen sorkuntza 186.402 tonara iritsi da Euskadin (85 kilogramo biztanleko eta urteko).

Bizkaia egin duen ekarpena % 61,65koa izan da, hau da, biztanleriaren banaketaren arabera dagokiona (% 52) baino handiagoa.


Hondakin horren gaikako bilketa % 68,95era iritsi da, udalerrri askok merkataritza-kartoiarekin aplikatzen duten atez ateko bilketak bultzatuta seguruenik. Lurraldeei dagokienez, Arabak sortutako kartoiaren % 58,49 bildu du gaika, Bizkaia % 68,75 eta Gipuzkoak % 73,42.

Arestian aztertutako bi hondakinetan (biohondakinetan eta ontzietan) ez bezala, tratamendu nagusia birziklatzea izan da hiru lurralde historikoetan: % 64,79 Araban, % 66,97 Bizkaian eta % 71,85 Gipuzkoan.


Sorkuntza



Gaikako bilketa



Kudeaketa



9. grafikoa. PAPERAREN/KARTOIAREN HONDAKINEN sorkuntza, gaikako bilketa eta kudeaketa Euskadin. Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

Beira



2022. urtean, 86.131 tona beira-hondakin sortu dira Euskadin, hau da, 39 kilogramo biztanle eta urte bakoitzeko.


Korrante horrek eta paperaren/kartoiaren hondakinek bi ezaugarri berdin dituzte:

Gaikako bilketaren tasa handia (% 74,08 Euskadin, % 80,19 Araban, % 68,51 Bizkaian eta % 79,20 Gipuzkoan).

Birziklatze materialeko tratamenduen aplikazioa (% 72,51 Euskadin, % 83,65 Araban, % 66,38 Bizkaian eta % 76,74 Gipuzkoan), jatorrizko bereizketaren maila handiaren ondorioz funtsean.


Sorkuntza

Sorkuntza, guztira (tonak)




Gaikako bilketa

Gaikako bilketa (%)



Kudeaketa

Kudeaketa-tratamenduak (%)



10. grafikoa. BEIRA-ONTZIEN HONDAKINEN sorkuntza, gaikako bilketa eta kudeaketa Euskadin. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

Ehun-gaiak

2022. urtean, 50.621 tona ehun-hondakin sortu dira Euskadin, hots, 23 kilogramo biztanleko.

Bizkaia egindako ekarpena (% 66,77) biztanleria-banaketaren arabera dagokion balioa (% 52) baino handiagoa da, Araba eta Gipuzkoan ez bezala (% 10,63 eta % 22,60, hurrenez hurren).


Gaikako bilketa (% 17,98) oraindik ez dago oso finkatuta, eta Gipuzkoak eman du erantzunik handiena (% 27,37). Araban, berriz, % 21,62ra iritsi da, eta Bizkaian % 14,22ra.

Berrerabiltzeko prestaketa edo birziklatzea lehentasunezko tratamenduak izatea espero daitekeen arren, gaikako bilketaren tasa baxuaren ondorioz, Bizkaia eta Gipuzkoan balorizazio energetikoko tratamenduak aplikatu dituzte, gehienbat sortutako ehun-hondakinetan (% 50,46 eta % 67,73, hurrenez hurren). Araban, berriz, hondakin horiek ezabatze-tratamenduak jasotzen dituzte nagusiki (% 78,38).

Sorkuntza


Sorkuntza, guztira (tonak)

Gipuzkoa	Araba
11.438	5.382
% 22,60	% 10,63




Gaikako bilketa

Gaikako bilketa (%)



Kudeaketa

Kudeaketa-tratamenduak (%)



11. grafikoa. EHUN-HONDAKINEN sorkuntza, gaikako bilketa eta kudeaketa Euskadin. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.



5 UDAL-HONDAKINEN EGUNGO EGOERA ETA HELBURUAK

3. atalean identifikatutako lege-helburu nagusiak eta 4. atalean aztertutako adierazleak batera aztertuz gero, 3. taulan agertzen diren emaitzak lortzen dira. Emaitza horiek zehatz-mehatz aztertuko ditugu ondorengo ataletan.

Helburuak	2025	2030	2035	2022					
				EB	Espainia	Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Sorkuntza, 2010. urtearekin alderatuta	-% 13	-% 15		+% 3,33	-% 6,24	-% 8,22	-% 10,53	-% 7,47	-% 8,51
Bilketa bereizia			% 50	-	-	% 45,31	% 39,41	% 39,14	% 58,51
Berrerabiltzeko prestaketa + birziklatzea	% 55	% 60	% 65	% 48,57	% 38,62	% 42,44	% 38,92	% 35,93	% 55,19
Berrerabiltzeko prestaketa	% 5	% 10	% 15	% 48,57	% 38,62	% 0,58	% 0,62	% 0,53	% 0,65

3. taula. Europako, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Lurraldeko helburuak eta adierazleak. *Iturria: Eurostat eta Eusko Jaurlaritzaren 2022ko*



5.1 SORKUNTZA

2022. urtean, udal-hondakinen sorkuntza 2010ean baino % 8,22 txikiagoa izan da Euskadin. Hortaz, **oraindik aurrera egin beharra dago lege-helburu aplikagarria lortzeko** (-% 13 2025ean eta -% 15 2030ean).


Hala ere, azken urteotan hainbat motatako minimizazio-ekimenak garatu dira. Hondakinei buruzko 7/2022 Legearen VI. Eranskinean jasotako prebentzio-neurrien ezarpen-maila aztertzen bada, honako hau ikus daiteke:



Baliabideen erabilera efizientea sustatzeko **plangintza-elementu** nagusi gisa, Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030eko Estrategia (Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024ko Planarekin osatua) eta hondakinei buruzko planak (Autonomia Erkidegokoa eta foru-planak) eta programak (tokikoak) daude.

Eusko Jaurlaritzak, Ihobe sozietate publikoaren bitartez, hainbat **tresna tekniko eta ekonomiko** prestatu ditu hondakin gutxiago sortuko dituzten produktuak, teknologiak, prozesuak eta zerbitzuak diseinatu eta/edo garatzeko eta, sentsibilizazio-bide gisa, lortutako emaitzak zabaltzeko.

Foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak beren eskumenetan oinarrituta aplikatzen dituzten politiken bilakaera neurtzeko kalkulaturako **adierazle** sortak daude.



Hainbat tresna prestatu dira enpresen artean **ekodiseinua** sustatzeko.



Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea erakunde publiko eta pribatuek parte hartzeko aukera sustatzen da urtero.



Erabilera bakarreko produktuak ordetzearen aldeko apustua egin da, hala nola herriko jai askotan erabiltzen diren edalontziak.



Etiketa ekologikoa duten produktuen kontsumoa sustatzen da.



Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko 3 programa garatu dira, eta sektore publikoko erosketetan ingurumen-irizpideak eta hondakinen sorkuntza prebenitzeko irizpideak txertatzeko aukera ematen ari dira.



Artikulu**en berrerrabilera** sustatzen ari da, bigarren eskuko denda eta azoken, konponketa-gune publikoen eta abarren bidez.

Elikagai-hondakinen arloan, Eusko Jaurlaritzaren mendeko Erika Fundazioak hainbat ekimen zuzendu ditu, eta, haien artean, honako hauek nabarmentzen dira:



Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataforma abian jartzea (zero xahuketa).



Euskadiko nekazaritzako elikagaien sistemako elikagai-xahuketari buruzko azterketa bat egin da, Europako Batzordeak hondakin horien neurketa homogeneizatzeko ezarritako jarraibideak jasotzen dituen metodologia baten arabera.



Alderdi bakoitzak bere gain hartu beharreko erantzukizunen inguruko jarraibide zehatzak proposatzen dituen *“Euskadin elikagaien soberakinak dohaintzan emateko orientazio-gida”* argitaratzea.

Neurri handiagoan edo txikiagoan, paperaren erabilera arduratsua, informazioaren desmaterializazioa, produktuen solteko salmenta eta abar barneratu dira.

5.2 GAIKAKO BILKETA

Euskadin, helburu hori lortzeko aurrerapen-maila oso handia izan da. Izan ere, 2022. urtean gaikako bilketa % 45,31ra iritsi da, eta araudiak 2035erako % 50era iristea eskatzen du.




Gaikako bilketaren tasarik onenak dituzten udalerrietan, honelako neurriak hartu ohi dira:



Ekoizle handiekin akordioak edo jarduketa espezifikoak izatea.

Frakzio organikoa jantoki kolektiboetan, kartoia saltoki eta azoketan, zurezko kaxak fruta-dendetan eta inausketako/lorezaintzako hondakinak bizitegi-urbanizazioetan edo belarrezko kirol-zelaietan uzteko baldintzak zenbat eta hobeak izan, orduan eta handiagoa da gaikako bilketaren tasa.



Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzen maiztasuna.

Gaikako bilketaren emaitzak hobeak izan ohi dira beren webguneetan edo beste euskarri batzuetan bereizteko dauden aukerei (uzteko guneei, baldintzei eta abar) buruzko informazio argia eta xehatua eskaintzen duten eta horren inguruko aldizkako sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzten udalerrietan.



Kontrol-, ikuskapen-eta/edo zehapen-maila.

Fiskalizazio publikoa handitzen denean, ekoizleen portaera hobeak izan ohi da.



Zerga-pizgarrien onarpena.

Ordaindu beharreko hondakin-tasan hobariak aplikatzeak jokabide-jarraibideak aldatzen laguntzen du, baina baliabide egokiak (baliabide materialak eta giza baliabideak) behar dira behar bezala aplikatzen direla bermatzeko eta iruzurrak saihesteko.



Adierazitako faktoreek ez ezik, aplikatutako **bilketa-ereduak** ere eragina du udalerrri bateko gaikako bilketa-ren tasan. Euskadin, hainbat aukera ezarri dira, eta **eredurik ohikoena** honako hau da:

- Edukiontzietako bilketa irekia, honako hondakin hauetarako: ontzi arinak (plastikoak eta metalikoak), papera/kartoia, beira, hondakin txiki berrerabilgarriak (arropa, oinetakoak, liburuak, etxetresna elektriko txikiak eta abar), sukaldeko olioak, pilak eta errefusa. Oro har, atzeko bilketako eta lurpeko bilketako sistemak alboko bilketako sistemarekin ordeztzen ari dira, lotutako kostu txikiagoak baititu.
- Edukiontzi itxietako bilketa frakzio organikorako, giltza unibertsalaren edota erabiltzailea identifikatzeko sistemaren bidez.
- Merkataritza-jatorriko paperaren/kartoiaren atez ateko bilketa.
- Tamaina handiko hondakinen bilketa bide publikoko leku jakin batzuetan.
- Garbiguneen erabilera baliabide osagarri gisa. Ildo horretan, gaur egun 60 garbigune finko daude (9 Araban, 27 Bizkaian eta 24 Gipuzkoan), baita 111 landa-garbigune ere (guztiak Araban). Azken horietan, herritarrek tamaina handiko hondakinak eta inausketa-hondakin handiak utz ditzakete.

Dena dela, hain zabaldua ez dauden, baina gai-kako bereizketa-tasa hobeak dakartzaten **beste bilketa-eredu batzuk edo adierazitako ereduak beste aldaera batzuk** daude:

- Hondakin organikoen zuzeneko konpostatzea, etxeko konpostatzearen (edo autokonpostatzearen) edo konpostatze komunitarioaren bidez. Azken horren kasuan, ekoizleek barruti jakin batean kokatutako konpostagailuak erabiltzen dituzte.
- Paperaz/kartoiak gain beste hondakin-mota batzuk (hala nola hondakin organikoak edo egurrezko kaxak) saltokietan atez ate biltzea.
- Tamaina handiko hondakinen atez ateko bilketa. Horri esker, aukera handiagoak daude hondakin horiek berrerabiltzeko, ez baitituzte jasaten bide publikoan uzten direnean jasaten dituzten baldintza meteorologikoen edo bandalismoaren ondorioak.
- Herritarrek sortutako hainbat hondakin motatan (errefusean, hondakin organikoetan, ontzietan, paperean/kartoiak eta abar) aplikatutako atez ateko bilketa Euskadiko 17 udalerritan.
- Hondakin organikoen eta errefusaren edukiontzia ixtea:
 - Kasu batzuetan, sistema horrek irekiera-muga bat izaten du lotuta: asteko egun jakin batzuetan, edota asteko edozein egunetan, baina asteko irekieren gehieneko muga batekin. Sistema horiek 23 udalerritan baino gehiagotan aplikatzen dira (Gipuzkoakoak batez ere), eta pixoihalak sortzen dituzten etxebizitzetarako neurri espezifikoak dituzte lotuta, hala nola hondakin mota horretarako edukiontzi espezifikoaren ezarpena (irekitzeko mugarik gabe), edota errefusaren edukiontzia irekitzeko txartela berriz konfiguratzea, arestian aipatutako egunen edo asteko irekieren mugetatik salbuesteko.
 - Beste kasu batzuetan, errefusaren edukiontziaren itxierak ez du irekitzeko mugarik. Hori 40 udalerritan baino gehiagotan gertatzen da, gehienak Gipuzkoakoak.
- Egun berean jartzen eta kentzen diren edukiontzien erabilera. Sistema hori Gasteizko hirigune historikoan eta erdigunean aplikatzen da, adibidez.
- Inausketa- eta lorezaintza-hondakinen bilketa espezifikoak, bi ereduren bidez: atez ateko bilketa telefonoz deitu ondoren, edo herritarrek horretarako gaitutako leku espezifikoetan uztea.
- Garbigune mugikorren erabilera; aldizka sortutako hondakinak (hala nola fluoreszenteak, CDak, pinturak, aerosolak, etxetresna elektrikoak eta abar) uzteko etxola txikiak dira.

5.3 KUDEAKETA

Berrerabiltzeko prestaketaren arloko lehen helburu espezifikoa 2025. urterako ezarrita dago. Beraz, 2022an ezin da esan bete gabe dagoenik.

Hala ere, kontuan hartu behar da araudiak tratamendu horren etengabeko hobekuntza ezartzen duela. Izan ere, % 5 eskatzen du 2025erako, % 10 2030erako eta % 15 2035erako, hau da, portzentajezko puntu bateko hobekuntza urtean, datorren hamarkadan.

Beraz, aurrerapen-maila handia beharko da, 2022an kudeatutako hondakinen % 0,58tan aplikatu baitira berrerabilerarako prestatzeko tratamenduak Euskadin. Datu hori oso antzekoa izan da lurralde historiko guztietan (% 0,65 Gipuzkoan, % 0,62 Araban eta % 0,53 Bizkaian).

Bestalde, **berrerabilerarako prestatzera eta birziklatzera bideratutako tratamenduak aplikatzeko helburuari** dagokionez (azken horretan konpostatzea eta beste birziklatze material bat barnean hartuta):

- 2022. urtean % 42,44ra iritsi da Euskadin. Beraz, esparru horretan lan egiten jarraitu beharra dago.
- Gogorarazi beharra dago araudiak % 50eko tasa eskatzen duela 2020rako, % 55ekoa 2025erako, % 60koa 2030erako eta % 65ekoa 2035erako. Dena dela, kontuan hartu behar da 5 urtetan eskatzen den % 5eko igoera hori bat datorrela aldi horietan berrerabiltzeko prestaketarako eskatutako igoerarekin. Hortaz, birziklatzeak gutxienez % 50eko tasara iritsi behar du eta tasa horretan iraun behar du datorren hamarkadan.



Betebehar horiek betetzeko, 4. taulan adierazitako **berrerabilerarako prestatzeko eta birziklatzeko azpiegiturak** dau-de gaur egun.

Berrerabilerarako prestatzeko eta birziklatzeko azpiegiturak		
Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ontzi arinak sailkatzeko instalazioa (Vitoria-Gasteiz). Beirazko ontziak sailkatzeko instalazioa (Laudio). Berrerabilerarako prestatzeko instalazioa (Vitoria-Gasteiz). Tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioa (biometanizazioa eta konpostatzea barne) (Vitoria-Gasteiz).	Ontzi arinak sailkatzeko instalazioa (Amorebieta-Etxano). Konpostatze-instalazioa (Bilbo). Biohondakinak kudeatzeko eskualdeko instalazioak (Getxo, Igorre eta Berriatua). Tamaina handiko hondakinak tratatzeko eta aparatu elektriko eta elektronikoak berrerabilerarako prestatzeko instalazioa (Ortuella). Berrerabilerarako prestatzeko instalazioa (Mungia). Tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioa (Bilbo).	Ontzi arinak sailkatzeko 2 instalazio (Urnieta eta Legazpi). Konpostatze-instalazioa (Bergara). Biometanizazio-instalazioa (Donostia). Tamaina handiko hondakinak eta/edo ehun-hondakinak berreskuratu, berrerabili, konpondu eta berrerabilerarako prestatzeko 4 instalazio (Irun, Donostia, Arrasate eta Errenteria). Tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioa (Donostia).

4. taula. Berrerabilerarako prestatzeko eta birziklatzeko dauden azpiegiturak.

Iturria: Autonomia Erkidegoko hondakinen plana eta udal-eskumeneko hondakinen foru-planak.

Azpiegituren zuzkidura hori **beste azpiegitura batzuekin** osatzen da. Horiek “berrerabilerarako prestatzeko” eta “berrerabilerarako prestatzeko + birziklatzeko” lege-hel-buruak betetzen laguntzen ez duten arren, aukera ematen dute sortutako hondakin guztiei tratamenduren bat emateko:

- Araban, Gardelegiko zabortegia (Vitoria-Gasteiz).
- Bizkaian, balorizazio energetikoko instalazioa (Bilbo) eta Jatako (Lemoiz) eta Artigasko (Bilbo) zabortegiak.
- Gipuzkoan, balorizazio energetikoko instalazioa (Donostia). Bertako zepak ondoko instalazio espezifiko batean tratatzen dira.

Azkenik, **zabor solteen** (hots, dagokien lekuetan uzten ez diren eta espazio naturaletan edo hiri-espazioetan abandonatuta geratzen diren hondakinen) problematikari

dagokionez, hainbat toki-erakunde aurrera egiten ari dira arlo horretan. Horretarako, neurri espezifikoak hartu dituzte beren lurraldeko puntu gatazkatsuetan, hala nola:

- Urbazterreko pasealekuetan baranda trinkoak jartzea, haizeak edo euri-urek mugituta ur-ibilguetan edo itsasoan amaitzen duten hondakinen kantzitatea murrizteko.
- Ur-masetatik oso hurbil dauden edukiontziak barneko eremuetan birkokatzea, arestian adierazitako arrazoi beragatik.
- Haize-arrisku bereziko eremuetan kokatutako edukiontziak lurrean finkatzeko sistemak ezartzea, irauli ez daitezen eta bildutako hondakinak barreiatu ez daitezen.
- Garbiketa-kanpaina espezifikoak egitea, dei-efektua saihesteko, adibidez, parke naturaletan.

6

ERRONKAK


Aurreko atalean azaldutako egoera aztertu ondoren, zazpi erronka detektatu dira hainbat esparrutan, eta komeni da erronka horiei lehentasuna ematea, haiei ekiteak aplikatu beharreko lege-helburuen betetze-maila hobetzea ahalbidetuko baitu, 5. taulan islatutakoari jarraikiz.

Erronkak		Lotutako helburuak			
		Prebenitzea	Biltzea	Berrerabiltzeko prestatzea	Birziklatzea
1.E	Berrerabilera eta konponketa areagotzea				
2.E	Elikagai-hondakinen inguruan jardutea				
3.E	Tamaina handiko hondakinen kudeaketa hobetzea				
4.E	EEH sistemen aplikazioa berrikustea				
5.E	Sentsibilizazioa handitzea				
6.E	Jarraipena eta kontrola areagotzea				
7.E	Hondakinen tasa berrikustea				

5. taula. Bete beharreko helburuei dagokienez aurre egin beharreko erronkak. *Iturria: Geuk egina.*

1. ERRONKA

Berrerabilera eta konponketa areagotzea



Prebenitzeko helburua hobetzeko, Euskadik hainbat tresna landu ditu dagoeneko, 7/2022 Legearen VI. Eranskinean jasota daudenak, hala nola:

- Plangintza-neurriak.
- Sentsibilizazioa, hainbat ekimenen bidez (hala nola Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen bidez).
- Erosketa publiko berdea.

Nolanahi ere, jarduteko aukerarik handiena eskaintzen duten tresnetako bat berrerabilera eta konponketaren zuzeneko sustapena da.

Horren bidez, produktuen balio-bizitzaren luzapena sustatu nahi da, hondakin bihurtu eta bilketa- eta tratamendu-zirkuituan sartu aurretik. Horretarako:

- Berrerabilera esker, erabiltzen den produktu bat beste pertsona bati eman dakioke dohaintza, truke edo bigarren eskuko salmenta bidez.
- Konponketari esker, berriz, edukizaleak produktua erabiltzen jarrai dezake, dituen akatsak konpondu ondoren.

2026an Europako bi zuzentarauren transposizioak bigarren neurri hori bultzatzea espero da. Alde batetik, **kontsumitzaileak ahalduzko 2024/825 Zuzentzariak**:

- Ingurumen-ezaugarriak eta zirkulartasun-alderdiak jasotzen ditu (hala nola iraunkortasuna, konpongarritasuna edo birziklagarritasuna), iruzurrezko merkataritza-jardunbideen xede izan behar ez duen produktu baten ezaugarri nagusi gisa.
- Kontsumitzailea dagokion kontratu edo eskaintza bati lotuta geratu aurretik merkataria modu ergi eta ulergarrian gogorarazi behar dio ondasunei eta haien elementu nagusiei dagokienez legeko adostasun-bermea dagoela, bi urteko gutxienezko iraupena nabarmenduta.

Bestetik, **ondasunen konponketa sustatzeko arau komunak ezartzen dituen 2024/1799 Zuzentzariak** honako alderdi hauek ezartzen ditu, besteak beste:

- Fabrikatzailearen konponketak doakoa edo zentzuzko prezio batekoa izan beharko du, eta zentzuzko epe batean egin beharko da.
- Fabrikatzaileak (edo, hala badagokio, baimendutako ordezkariak, inportatzaileak edo banatzaileak) bere konponketa-zerbitzuen berri eman beharko du modu erraz, argi eta ulergarrian.
- Konponketen inguruko Europako online plataforma bat ezarriko da. Horri esker, kontsumitzaileek ondasunen konponketa-zerbitzuak eta, hala badagokio, berregokitutako ondasunen saltzaileak, produktu akastunen erosleak (berregokitzeko) edo parte-hartzean oinarritutako konponketa-ekimenak aurkitu ahal izango dituzte.

2. ERRONKA

Elikagai-hondakinen inguruan jardutea


Udal-hondakinen frakziorik handiena biohondakinena (% 31,41) dela kontuan hartuta, haien inguruan eta, zehazkiago, elikagai-hondakinen inguruan jardun beharra dago. Izan ere:

- Neurri zehatzak onartzen dituzte produkzio-soberakinen, iraungitzearen, hotz-katearen kudeaketa desegokiaren eta abarren ondorioz ez sortzeko.
- Hondakin bihurtu ondoren, bilketa behar bezala bideratzeak (konpostatzeko edo biometanizatze) gaikako bilketari eta birziklatzeari lotutako helburuak hobetzen laguntzen du.



Hondakinei buruzko 7/2022 Legeak berak elikagai-hondakinen arloko betebeharrak espezifikoki jasotzen ditu, hala nola banaketa-enpresek eta sukaldaritza kolektiboko enpresek honako hauek lehenesteko eskatzen duena:

- Elikagaien dohaintza eta giza kontsumorako beste birbanaketa mota batzuk, edota saldu ez diren, baina oraindik kontsumitzeko egokiak diren produktuen eraldaketa.
- Animalien elikadura eta pentsuen fabrikazioa.
- Beste industria batean azpiproduktu gisa erabiltzea.
- Azkenik, hondakin bihurtuta, birziklatzea eta, bereziki, kalitaterik handieneko konpostaren eta digerituaren lorpena, lurzoruen mesederako erabiltzeko.
- Aurrekoa ezinezkoa denean, erregaien lorpena.



Elikagaien galera eta xahuketari buruzko 1/2025 Legeak giza kontsumorako dohaintza lehenesteko ikuspegi hori sendotzen du, eta horri lotutako arazo handiari (hots, alderdien segurtasun juridikoari, bereziki balizko osasun-arriskuen aurrean) aurre egiten dio dohaintza-hitzarmen edo dohaintza-akordio baten gutxieneko edukia arautzearen bidez, Eusko Jaurlaritzaren mendeko Elikatze Fundazioak 2020an argitaratutako **“Euskadin elikagaien soberakinak dohaintzan emateko orientazio-gidak”** bere garaian planteatutako jarraikiz.

3. ERRONKA

Tamaina handiko hondakinen kudeaketa hobetzea



Aurreko ataletan azaldu den bezala, berrerabiltzeko prestaketak erronka esanguratsua dakar hurrengo hamarkadan, urteko % 1eko hazkundera izan behar baitu. Izan ere, aplikatu beharreko araudiak 2025ean % 5eko ehunekoa eskatzen du, 2030ean % 10ekoa, eta 2035ean % 15ekoa.

Udal-hondakin desberdinen izaerak berrerabiltzeko prestatzeko aukerak baldintzatzen ditu. Nolanahi ere, jarduteko aukera gehien eskaintzen dituzten hondakinak tamaina handikoak (altzariak, tresnak eta abar) eta ehun-hondakinak dira.

Ehun-hondakinen bilketa bideratuta dago, neurri handiagoan edo txikiagoan, bide publikoan jarritako eta, zuzenean edo zeharka, foru-aldundiek kudeatutako edukiontzi espezifikoek bidez.

Dena dela, tamaina handiko hondakinen bilketa askoz heterogeneoagoa da: toki-erakunde bakoitzak aplikatu nahi duen bilketa-eredua zehazten du, eta kanpoko enpresa bat kontratatzen du tratamendu-instalazioraino garraiatzeko.



Bilketa- eta garraio-eredu horrek zuzeneko eragina du hondakina berrerabiltzeko prestatzeko aukeretan.

Ilido horretan, bilketa atez ateko sistema baten bidez egiten bada (aldeztatik aurretik deituta), aukerak handiagoak dira.

Herritarrek hondakina bildu aurreko gauean bide publikoko puntu jakin batzuetan utzi behar badute, berriz, handiagoa da narriaduraren bat jasateko arriskua (bizilekutik uzteko lekuraingo lekualdaketa, bandalismoaren edo baldintza meteorologikoen ondorioz), eta, horren ondorioz, berrerabiltzeko prestatzeko aukerak txikiagoak dira.



Bestalde, **produktu jasagarriari aplikatu beharreko diseinu ekologikoko betekizunei buruzko 2024/1781 Erregelamenduaren (EB)**

aplikazioa tratamendu mota hori sustatzeko lege-babesa izatea espero da.

Erregelamendu horrek zeharkako izaera du (fabrikatutako ia gai guztietan aplikatuko da), eta diseinu ekologikoko betekizunak ezarriko ditu, besteak beste. Betekizun horiek artikulua bakoitzari gaineratu beharreko Produktuaren Pasaporte Digitalean jaso beharko dira. Diseinu ekologikoko betekizun horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Iraunkortasuna.
- Fidagarritasuna.
- Berrerabiltzeko aukera.
- Eguneratzeko aukera.
- Konpongarritasuna.
- Mantentzeko eta berregokitzeko aukerak.
- Birmanufakturtzeko aukera.
- Substantzia kezkagarrien agerpena.
- Material birziklatuaren edukia.
- Materialak balorizatzeko aukera.
- Eta abar.

Informazio horrek berrerabiltzeko prestatzeko instalazioen errendimendua hobetzen lagunduko du, baita birziklatze-instalazioena ere, berrerabiltzeko prestatzea ezinezkoa denean.

4. ERRONKA

EEH sistemen aplikazioa berrikustea (Ekoizlearen Erantzukizun Hedatua)



Azken urteetan, eta udal-hondakinei dagokienez, sistema hori etxeko ontzietan, piletan/metagailuetan eta aparatu elektriko eta elektronikoetan baino ez zen aplikatzen.

Dena dela, sistema hori aurki merkataritza-ontzietara (enbalatzeko kartoi eta plastikoetara, egurrezko kaxetara eta abar) eta, epe laburrean, ehun-gaietara eta altzarietara/tresnetara zabalduko denez gero, Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuaren Sistema Kolektiboak (SCR) zein haiekiko akordioa izenpetzen duen entitateak (toki-erakundeak edo Foru Aldundiak) beren gain hartutako betebeharrak berrikusi egin behar dira.

Ildo horretan, SCRak bere hondakinen bilketa eta kudeaketa bere gain hartzen badu (ECOVIDRIO izenekoaren kasuan, adibidez), toki-erakundeak ez du eskumenik hartuko bere gain, eta egungo gastua kenduko du. Aitzitik, SCRarekin (hala nola ECOEMBES izenekoarekin, ontzi plastiko eta metalikoen kasuan) bilketa eta kudeaketa toki-erakundeak edo Foru Aldundiak bere gain hartzea adostuz gero, erakunde horrek SCRaren diru-sarrerara bat jaso beharko du lan horiengatik.

Bi egoera horietako edozeinetan, beharrezkoa izango da:

- Hondakinen udal-tasa eguneratzea. Izan ere, diru-sarrerak gehitu edo gastuak murriztuko dira, eta horrek, nolahi ere, onura bat ekarriko du toki-erakundearentzat.
- Dauden bilketa-ereduak berrikustea.
- SCRerako koordinazioa eta haien jarraipena areagotzea.

Bestalde, kontuan izan behar da artikulu horiek (merkataritza-ontziak, ehun-gaiak, altzariak eta tresnak) merkaturatzen dituzten enpresek ordaintzen dutela haien balio-bizitzaren amaieran artikuluak sortzen duen hondakinaren kudeaketa-kostua. Eta, horren aurrean, bi aukera dituzte (biak ingurumen-onura nabarmenarekin):

- Kostu hori produktuaren prezioari egozte. Horrek kontsumoa eta, horren ondorioz, kontsumo horren ondoriozko hondakina murriztea eragin dezake.
- Produktuak diseinatzean ingurumen-hobekuntzak txertatzea. Horrek erabilitako lehengaiak murriztea, konpontzeko ahalmen handiagoa izatea, sortuko den hondakin kantitatea murriztea edo hondakinak biltzen dituzten materialen aprobetxamendua hobetzea eragin dezake.

Egungo eta etorkizuneko araudiak EEH sistemek prebentzioari, gaikako bilketari eta kudeaketari lotutako helburuak betetzeko egiten duten ekarpena handitzeko beharrezkoak diren lege-betekizunak indartzen jarraitzea espero da. Hori dagoeneko gertatu da ontziekin. Izan ere, **ontziei eta ontzien hondakinei buruzko 2025/40 Erregelamenduak (EB)** zenbait alderdi arautzen ditu, eta, haien artean, 4. irudian agertzen direnak.



Produktuek zer edukiontzitan utzi behar diren argi eta garbi adieraziko duten etiketak eramango dituzte.



Etiketan ontzia fabrikatzeko erabilitako materialak zerrendatuko dira.




Hotelek ontzi kargagarriak erabiliko dituzte garbiketa-produktuetarako.



Kontsumitzaileek ontzi berrerabilgarriak erabiliko dituzte eramateko gaiak erosten dituztenean.



Ontziak ahal den neurrian murritzuko dira, baliabideen xahuketa saihesteko.



Erabilera bakarreko ontzi batzuentzat gordailu eta itzulketa sistemak sortuko dira.

4. irudia. Ontziei eta ontzien hondakinei buruzko Europako Erregelamendu berriaren ondoriozko aldaketa nagusiak kontsumitzaileentzat. *Iturria: Europako Kontseilua.*



5. ERRONKA

Sentsibilizazioa handitzea



Bilketa-kanalak eta tratamendu-azpiegiturak ez dira oso baliagarriak izango hondakinen ekoizleek erabiltzen ez badituzte edo oker erabiltzen badituzte. Hori dela eta, helburu guztiak betetzeko egiten duen zeharkako ekarpena kontuan hartuta landu behar da sentsibilizazioa.

Erronka honek hainbat alderdi ditu:

- Komeni da inplikaturako eragile guztien sentsibilizazio-ekintzak koordinatzea: SCRak, udalak, mankomunitateak, kuadrillak eta foru-aldundiak.
- Helburu guztiak hartu behar dira kontuan. Izan ere, normalean gaikako bilketan jartzen da arreta (bildutako kantitatea handitzeko eta inpropioen ehunekoa murrizteko), baina ez dira behar bezala kontuan hartzen beste alderdi batzuk, hala nola prebentzioa edo berrerabiltzeko prestaketaren hobekuntza ahalbidetzeko baldintzak.
- Sentsibilizazioak, herritarrengana ez ezik, saltokietara eta zerbitzu publiko eta pribatuetara ere iritsi behar du. Ildo horretan, ekoizle handiak nabarmentzen dira, hala nola:
 - Fruta-dendak eta elikagaien saltokiak. Izan ere, biohondakinak, kartoizko edo egurrezko kaxak eta beste enbalaje mota batzuk sortzen dituzte.
 - Jantoki kolektiboak (jaketxeen sektorean, ikastetxeetan eta mota orotako egoitzetan daudenak); hobetzeko aukera handiak eskaintzen dituzte elikagai-xahuketaren, biohondakinen eta ontzien arloan.



6. ERRONKA

Jarraipena eta kontrola areagotzea



Bilketa- eta tratamendu-baliabideak gaitzeak, sentsibilizazio egoki batekin batera bada ere, beti ez du arrakasta bermatzen. Horregatik, beharrezkoa da toki-erakundeek jarraipen- eta kontrol-zereginak egitea, honako helburu hauekin:

- Toki-erakundeek hondakinen inguruko politikei dagokienez hartu duten konpromiso irmoa ekoizleen aurrean bistaratzea.
- Adierazleak kalkulatzeko eta prebentzioari, gaikako bilketari eta kudeaketari lotuta ezarritako neurrien aurrerapen-maila baloratzea.
- Aurrerapen horretan puntu kritikoak identifikatzea, horren inguruko neurriak hartu ahal izateko. Adibidez, honako kasu hauetan:
 - Industria-eremuetan kokatutako edukiontzien erabilera desegokia: teoriarik, izaerari eta kantitateari dagokionez bizileku batean sortutakoekin pareka daitezkeen hondakinak baino ezin dituzte jaso, baina, praktikan, enpresen produkzio-prozesuari lotutako hondakinak utzi ohi dira.
 - Merkataritza-ekoizle handiek edo zerbitzu-sektorekoek hondakinak ez bereiztea. Horrek nabarmen handitzen du errefusaren sorkuntza.
 - Bilketa-enprekin sinatutako kontratu-klausulak edo SCRekin izenpetutako hitzarmenen baldintzak ez betetzea.
 - Frakzio organikoaren erabiltzailea identifikatzen duen eta tasan hobari bat eskaintzen duen sistemaren iruzurrezko erabilera.



Komeni da jarraipen- eta kontrol-zeregin hori sentsibilizazioa indartuko duen ikuspegi didaktiko batekin egitea, baina ez-betetzeak behin eta berriz gertatzen direnean, beharrezkoa izango da hondakinei buruzko ordenantza teknikoan araututakoari jarraikiz bidezkoak diren zehapen-prozedurak hastea. Osterantzean, ekoizleek hauteman dezaketen zigorgabetasun-sentsazioak sentsibilizatzeko egindako ahalegina zapuztu dezake.

7. ERRONKA

Hondakinen tasa berrikustea



Azaldutako zenbait erronkek (tamaina handiko hondakinei, sentsibilizazioari, kontrol eta jarraipenari eta abarri lotutakoek) dauden finantzaketa-iturriez gain beste batzuk behar dituzte aurre egin ahal izateko. Hala ere, aztertu dugunaren arabera EEH sistemari lotutako hondakinen inguruko erantzukizunen berantolaketarekin espero diren diru-sarrerak (edo gastuen murrizketa) ez dira nahikoak izango.

Dena dela, lege-betekizun batek diru-sarrera osagarri horiek lortzeko aukera emango du. Izan ere, hondakinei buruzko 7/2022 Legearen 11.3 artikulua ezartzen duenez, 2025eko apirilaren 10a baino lehen toki-erakunde baten hondakin-tasak honako alderdi hauek bete beharko ditu:

- Ez da defizitarioa izango (ezta soberazkoa ere), baina hondakinei lotutako diru-sarrera guztiak (materialen edo energiaren salmentari lotutakoak) eta gastu guztiak (bilketa, garraioa, tratamendua, itxitako zabortegien mantentze-lanak, zaintza, sentsibilizazioa eta abar) hartu behar ditu kontuan. 6. taulan, toki-erakundeek hondakin mota bakoitzerako aurreikusi beharreko diru-sarreraren eta gastuen zerrenda bat agertzen da.
- Sortutako hondakinen arabera ordainketa-sistemak ezartzeko aukera eman behar du.


Beraz, hondakin-tasa egoki bat kalkulatzeko erronka lagungarria da helburuak betetzeko. Horretarako, finantzaketa gaitzeaz gain, prebentzioari lotutako helburua indartzen da, sortutakoaren arabera ordaintzeko sistemei esker sortzaileek (herritarrek, saltokiek eta zerbitzuen sektoreak) sortutako hondakinen kantitatea eta, horren ondorioz, ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa murrizteko neurriak hartzea espero baita.

Sortutakoaren arabera ordainketa ahalbidetzeko, hondakinak biltzeko zerbitzu bakoitzaren **erabilitzailea identifikatzeko sistemak ezartzea** erronka konplexua da, beharrezkoa den inbertsio ekonomikoagatik ez ezik, inplikaturako teknologiarik lotutako arazoengatik ere bai (adibidez, eguraldi txarra zein bilketa-eragiketaren berezko kolpeak edo gorabeherak jasan behar dituzten edukiontzietan instalatuta egoteagatik).

Hondakin-tasa **hondakinen sorkuntzarekin erlazionatu daitezkeen irizpideen** arabera eguneratzea bitarteko aukera bat izan daiteke sortutakoaren arabera ordainketa erabat aplikatzeko bidean. Adibidez, ur-kontsumoa kontuan hartzeak etxebizitza mota orotarako (errolatuta dauden pertsonen edo urtean jendea bizi den hilabeteen kopurua edozein izanik ere) eskatzen den ohiko zenbateko bakarra baztertzea ahalbidetzen du.

Zuzeneko gastuak	
Beste erakunde batzuei (hala nola mankomunitateei edo partzuergoei) egindako transferentziak	Finantza-gastuak
Langile-gastuak (langile propioak badaude)	Inbertsio-gastuak finantzatzeko maileguen interesak. Beste batzuk.
Gastu arruntak (ondasunak eta zerbitzuak)	Amortizazioak
Bilketa. Garraioa. Garbiketa. Tratamendua. Zaintza eta kontrola. Instalazio propioen ustiapena. Zabortegien zaintza eta mantentze-lanak, itxi ondoren. Urteko kontzientziazio- eta komunikazio-kanpainak. Jarduketa espezifikoak (konpost-ontziak, poltsak eta abar). Kontsumoak: erregaia, ura, garbiketa-produktuak, elektrizitatea, gasa, konpostatzeko materiala. Edukiontzien, ibilgailuen, konpostatze-eremuen, beste instalazio batzuen eta abarren mantentze-lanak. Ondasunen aseguruak (pabiloia, ibilgailuak). Alokairuak: lurrak, eraikinak, ekipamenduak eta abar.	Ibilgailuak. Ekipamenduak: edukiontzia, konpost-ontziak eta lotutako instalazioak. Biltegiatze-instalazioak, tratamendu-instalazioak eta abar. Higiezinak. Erabiltzailea identifikatzeko softwarea. Ondorioak hainbat ekitalditan dituzten sentsibilizazio-kanpainak. Beste batzuk.
	Tributuak
	Hondakinak zabortegean uzteagatiko zerga. Beste erakunde batek egindako zerbitzuagatiko tasa (zerga-bilketako zerbitzua eta abar). Jasandako BEZa, hirugarrenei jasanarazi ezin zaiena.
Zeharkako gastuak	
Kostu medialak	Egitura-kostuak
Toki-erakundearen barruan hondakinen arloan zereginen bat egiten duten arloen kostuak: bulego teknikoa, polizia, obra-brigada, Herritarren Arretarako Zerbitzua, arlo ekonomikoa, kontu-hartzailetza eta abar. Beste batzuk: erantzukizun zibileko aseguruak, bizi-aseguruak eta abar.	Udaletxea. Gobernu-organoak. Eta abar.
Diru-sarrerak	
Tasengatiko diru-sarrerak	Energia saltzeagatiko itzulkina
Materialen salmenta: medeagarri organikoak (konposta, digeritua, material bioegonkortua), papera/kartoia, plastikoak, metalak, beira	Ekoizlearen Erantzukizun Hedatua aplikatzeagatiko itzulkina: ontziak, aparatu elektriko eta elektronikoak, pilak
	Beste itzulkin batzuk

6. taula. Udal-hondakinei lotutako ohiko gastuak eta diru-sarrerak. Iturria: Ihobe.



7

LAN-ILDOAK

Planteatutako erronkei aurre egiteko, eremu geografiko bakoitzean (Autonomia Erkidegoan, lurraldean eta toki-eremuan) ezarritako lan-ildoak hondakinak prebenitu eta kudeatzeko bidezko planetan eta programetan jasota daude. Plan eta programa horietako gehienak indarraldia 2030an amaituko da.

Ondoren, Autonomia Erkidegoko planak eta foru-planek planteatutako erronkei aurre egiteko egindako

ekarpena aztertuko dugu. Dena dela, kontuan hartu behar da erronka horiei aurre egiteko lan-ildo batzuk (batez ere tamaina handiko hondakinak biltzeko sistemen, EEH sistema berrietara egokitzearen, jarraipenaren/kontrolaren eta hondakin-tasaren eguneratzearen arloan) toki-erakundeek mende daudela, eta erakunde horiek lan-ildo horien jarduketa bideratzen dutela hondakin programen bitartez (programa horiek 5.000 biztanletik gorako erakundeek onartu behar dituzte gutxienez).

EUSKADI

Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planaren arabera, Eusko Jaurlaritzak datuen urteetan udal-hondakinaren inguruan hartu beharreko neurriak honako hauek dira funtsean:

- **Eragileekiko koordinazioa**, plataforma espezifikoaren bidez, hala nola:
 - **Hondakinak Koordinatzeko Organoa** (HKO), foru-aldundiak eta Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoa biltzeko gunea. Organo horrek hainbat lan egiten jarraitu beharko du, hala nola duela gutxi landutako **“EAEko udal-hondakinaren kontabilitate-gidaren”** aplikazio-maila baloratzen (gida horretan lantzen diren alderdien artean, frakzioen izendapena eta sailkapena eta aldizkako karakterizazioak egiteko irizpideak zehaztea aipa daitezke).

- **Udalsarea 2030**, lhobek koordinatutako toki-erakunde ugari osatutako sarea. Mankomunitateek, kuadrillek eta udalek eguneroko jardunean udal-hondakinaren arloko betebeharrak betetzean izaten dituzten problematika nagusiak identifikatzen eta haiei aurre egiten jarraituko du.
- **Tresna teknikoaren sorkuntza eta jarraipena**. Tresna horiek toki-erakundeei lege-betebeharrak betetzen edo dituzten erronka nagusiei aurre egiten laguntzera bideratuta daude. Adibidez, **“Udal-hondakinaren tasak lantzeko gidaren”** argitalpena azpimarra daiteke.
- **Sentsibilizazio-elementuen kudeaketa**. Elementu horiek toki-erakundeek erabili edo sustatu ditzakete. Adibidez, **Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea** edo zabor solteen aurkako **Let's Clean Up** kanpaina aipa daitezke.


ARABA

Arabako hiri-hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2017-2030 aldiko Planean aurreikusitako 80 ekin-tzen ia erdiak (35) **gobernantza onera** bideratutako neurriak dira, eta 2030era arte aplikatuko dira. Haien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Inplikaturako eragileen (Foru Aldundiaren, kuadrillen eta udalen) arteko **koordinazio** egokia.
- **Informazio- eta sentsibilizazio-ekimenak.**
- **Tresna ekonomiko eta fiskalei** (ordenantzei, erosketa berdeari eta abar) eskaintako arreta.
- Sorkuntzari eta kudeaketari buruzko **informazio kuantitatiboaren** zehaztasun egokia eta **Hondakinen Behatokian** integratzea.

Bestalde, datozen urteetan **hierarkia betetzearen** arloan aurreikusitako ekin-tzen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- **Frakzio organikora** bideratutako neurri sorta (diru-laguntza lerro espezifiko gisa), honako alderdi hauek jasotzen dituen, besteak beste: elikadura-xahuketaren prebentzioa, jantoki publikoen kontratuetan ingurumen-irizpideak ezartzea, gaikako bilketaren ereduaren diseinu integral berria eta inausketa- eta lorezaintza-hondakinen bilketaren hobekuntza.
- **Ekoizle handien** atez ateko bilketaren sustapena.
- **4 garbigune berrien** ezarpena (Arabako Mendialdean, Arabako Errioxan, Gorbeialdean eta Salburuan) eta eremu bakoitzeko errealitatera hobeto egokitu diren **hainbat garbigune-eredu** sortzeko aukeraren balorazioa.
- **Garbigune finkoen** gaikuntza **hiri-inguruneetan eta erdi-hiriko inguruneetan**, gaikako bilketarako azpiegiturak herritarrei hurbiltzeko.
- **Tamaina handiko hondakinak erabat desmuntatzeko azpiegitura** baten gaikuntza, dituzten materialen balorizazioa maximizatzeko.
- **Konpostatze-instalazio 1en edo 2ren** eraikuntza (Gasteizko inguruetan eta Aiarako Kuadrillan), maila txikiagoko beste eskualde-instalazio batzuekin osatuak.
- **Lehendik dauden tratamendu-instalazioetan hobekuntzak** egitea, hala nola Tratamendu Mekaniko Biologikoko Instalazioan (errefuserako eta material bioegonkortuaren soberakinerako ildo berri bat barne) eta ontzien instalazioan.



BIZKAIA

Bizkaiko toki-eskumeneko hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2024-2030 aldiko Plan Integralak egin beharreko 46 ekintza identifikatzen ditu. Planteatutako erronkei aurre egiteko egindako ekarpen bereziagatik, urtetik urterako honako lan-ildo hauek nabarmentzen dira:

- **Behaketa eta ikaskuntza**, errealitate bakoitzerako erabakirik egokienak hartzeko. Adibidez:
 - A3: Herritarren eta komertzioen **pertzepzioari eta jokabideari** buruzko informazioa etengabe eguneratzeko prozesuak.
 - A4: **Erkatzen diren eredu**en benchmarking analisia.
 - A6: **Joera eta jardunbide egokiei buruzko** txostenak egitea.
 - A10: **Idea berritzaileen** identifikazioa eta hautaketa (scouting), hondakin kudeaketari dagokionez, eta haiekin bat datozen dirulaguntza eta laguntzen eskema.
- Udal-hondakinen arloan eskumenak dituzten eragile desberdinen **koordinazioa**:
 - A11: Eragiketa-Koordinazioa: Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan Integralaren (BHPKPI) helburuak lortzea bultzatzen duen **Lantalde** bat sustatzea.
 - A12: Koordinazio estrategikoa: **Udal-jardueraren eta integrazioaren eredu**a.
- Prebentzioaren eta berrerabiltzeko prestaketaren sustapena:
 - A25: **Bigarren bizitza duten artikulua**k **merkaturatzeko sustapena** eta lankidetzatza.
 - A26: **Hondakin-bilketaren kudeaketa hobetzea**, garbiguneetan **berrerabiltzeko**.
- **Frakzio organikoaren eta errefusaren** inguruan jardutea, birziklatzearen arloko helburuak bete ahal izateko:
 - A34: **Gaika bildutako zatiki organikoaren (GBZO)** tratamendurako azpiegiturak hondakinen sorreraren eboluziora egokitzea.
 - A38: Gainerako zatikiaren (errefusa) **material birziklagarriak berreskuratuzeko dauden** teknikarik onenak ezartzea.
- Balorizazio energetikoaren aurrean **balorizazio materiala** maximizatzeko alternatibak bilatzea, lehenengoak ahalbidetzen baitu legezko helburu aplikagarriak betetzea:
 - A41: **Berreskuratutako erregai solidoen (BES)** tratamendurako **eta balorizazio materialerako** instalazio bat sustatzea.

GIPUZKOA

Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldiko Plan Orokorrean aurreikusitako 51 ekintzen ia erdiak (22) **prebentzioaren** arlokoak dira, eta honako hauek nabarmentzen dira:


- PRE-1: **Hondakinak sortzeagatik** herritarrei eta sektore komertzial eta industrialei zuzendutako **ordainketa-politikak** sustatzea.
- PRE-3: Etxeetan eta dendetan kontsumo arduratsua sustatzea, eta, horretarako, bertako produktuak, **konponketa, trukea** eta **bigarren eskuko gauzak** bultzatzea.
- PRE-9: Gipuzkoako **Elikagai Bankuaren** (GEB) bidez «Azken minutua» programa indartzea: emaila kopurua handitzea eta aprobetxamendu-formula berriak aurkitzea.
- PRE-11: Sare bat sustatzea ostalaritzan, jatetxeetan, catering-zerbitzuetan eta bestelako hondakin-sortzaile handietan sortutako **elikagai-soberakinak** bildu eta banatzeko. Sarea beste gizarte-laguntzako zentroetara zabaltzea.

Bestalde, **berrerabiltzeko prestatzeko** helburua betetzeko bidean aurrera egiteko, honako neurri hauek aurreikusten dira, besteak beste:

- BIL-1: Hondakinak **gaika biltzeko eredu eta sistema benetan eraginkor eta jasangarriak** etengabe sustatzen eta hobetzen laguntzea mankomunitateei.
- BERRP-1: AEEH, tamaina handikoak, ehungaiak eta bestelakoak **saltzeko, trukatzeko, konpontzeko eta berriro manufacturatzeko** sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea.
- BERRP-3: Garbigune eta minigarbiguneen sarea etengabe hobetzen laguntzea, **berrerabiltzeko prestatzea** sustatzeko.

Azkenik, instalazio mota desberdinek (konpostatze-instalazioek, biometanizazio-instalazioek eta ontzien instalazioek) dituzten beharrei buruzko azterketa aurreikusteaz gain, **informazioaren** eta **ezagutzaren** kudeaketari erreparatzen dio Planak, eta denboran irauteko neurri batzuk jasotzen ditu, hala nola:

- BIR-6: **Esperientzia arrakastatsuak** trukatzeari, identifikatzea eta hedatzea Gipuzkoako birziklapen-klusterraren bidez.
- BEH-4: **Behatokiaren Mahaia** guztiz garatzea kontsulta eta aholkularitzako organo tekniko gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea interesa duten eragileekin.
- OBS-7: Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako **informazio-, sentsibilizazio- eta komunikazio-plan** bat prestatzea eta garatzea (dagoeneko landu da).
- OBS-9: Behatokiaren bidez, udalerrri batzuetan izandako **esperientziak** identifikatzea eta ezagutaraztea. Bilketako jardunbide onenen berri ematea.



8

ONDORIOAK

Udal-hondakinak **baliabide-iturriak** dira lehengaietan defizitarioa den Europan. Hori eta beste politika batzuk (hala nola **klima-aldaketaren aurkako borroka**, **itsas ingurunearen babesa**, **Garapen Jasangarrirako Helburuak** eta **enpleguaren sorkuntza**) betetzeko egindako ekarpena direla eta, udal-hondakinen garrantziak gora egin du azken urteetan.

Egindako ahalegina gorabehera, **Euskadik aurrera egiten jarraitu behar du** prebentzioaren eta kudeaketaren arloan **aplikatu beharreko legezko helburuak** lortzeko (berrerabiltzeko prestaketa eta birziklatzea). Helburu horiek gogortu eta zabaltzeko dira 2025. urtetik aurrera.

Horretarako, **honako zazpi erronka hauei eman behar zaie lehentasuna**:

- 1. Berrerabilera** areagotzea (dohaintzaren, trukearen edo bigarren eskuko salmentaren bidez), baita **konponketa** ere, produktuen balio-bizitza luzatzeko eta, horren ondorioz, sorkuntza murrizteko.
- 2.** Araudi aplikagarriaren arabera saihestu behar diren eta, saihestu ezin badira, beste tratamendu batzuk (hala nola birziklatzeko helburua lortzen laguntzen duen konpostatzea) aplikatu aurretik lehentasunez giza kontsumorako dohaintzan eman behar diren **elikagai-hondakinen** inguruan jardutea.
- 3. Tamaina handiko hondakinen** (hots, berrerabilerrako prestatzeko tratamenduak jaso ditzaketenen artean jarduteko aukera gehien eskaintzen dituen korrontearen) kudeaketa hobetzea.
- 4. Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko (EEH) sistemen** aplikazioa berrikustea, bereziki merkataritza-ontzietan eta, epe laburrean, altzarietan/tresnetan eta ehungaietan aplikatzean. Izan ere, gaur egun toki-erakundeek beren gain hartzen dituzten kostuak eta erantzukizunak berrantolatu egingo dira.



5. **Sentsibilizazioa** areagotzea. Izan ere, ekoizleen portaera mobilizatzen duen tresna da, eta zeharkako ekarpena egiten du helburu guztietan.
6. **Jarraipena** eta **kontrola** areagotzea, ezinbestekoak baitira puntu kritikoak identifikatzeko, edozein esparrutan hobekuntzak egiteko eta zigorgabetasunak sentsibilizazioaren eragina ez zapuzteko.
7. **Hondakinen udal-tasa** berrikustea araudi aplikagarrian eskatutakoari jarraikiz. Horren bidez, arestian aipatutako erronkak finantzatzeaz gain, sortutakoaren araberako ordainketa ezartzeko bidean aurrera egin ahal izango da eta, horren ondorioz, prebentzioan ere lagunduko da.

Foru-planen arabera, erronka horiei 2030. urtea baino lehen aurre egiteko **jarduketa-ildoen** artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Eskumenen egungo banaketaren aurrean erakundeen artean beharrezkoa den **koordinazioa**.
- **Sentsibilizazio-neurriak** esparru guztietan (berrerabilera, prebentzioa, bereizketa eta abar).
- Hainbat **tratamendu-azpiegituraren** gaikuntza, batez ere tamaina handiko hondakinen eta biohondakinen kasuan.

Bestalde, toki-erakundeek jarduketak (5.000 biztanletik gorako udalerrietako hondakinen programen bidez bideratuak) honako alderdi hauek izango ditu ardatz:

- Bertako errealitatera **egokitutako bilketa-ereduen** egituraketa.
- **Jarraipena eta kontrola** indartzea.
- Politika horiek guztiak finantzatzeko aukera emango duten **hondakinen tasak** onartzea.

9

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: DEFINIZIOAK



Hondakina

Edukiztaileak baztertzen duen edo baztertu nahi edo behar duen edozein substantzia edo objektu.

Toki-eskumeneko hondakinak

Toki-erakundeek kudeatutako hondakinak.

Udal-hondakinak

- Etxeetan bildutako hondakin nahasiak eta bereizita bildutakoak, barnean direla papera eta kartoia, beira, metalak, plastikoak, bio-hondakinak, zura, ehungaiak, bilgarriak, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak, pilen eta metagailuen hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta tamaina handiko hondakinak, koltxoiak eta altzariak barne.
- Beste jatorri batzuetako hondakin nahasiak eta bereizita bildutakoak, baldin eta etxeko hondakinen izaearen eta osaeraren antzekoak badira.

Udal-hondakinen artean, ez daude honako hauek:

- Ekoizpenetik, nekazaritzatik, basogintzatik, arrantzatik, hobi septikoetatik, estolderia-saretik eta hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen hondakinak –araztegiko lohiak barne–, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak.

Etxeko hondakinak

- Etxeko jardueraren ondorioz etxeetan sortzen diren hondakinak, arriskutsuak eta arriskugabeak.
- Zerbitzu eta industrietan sortutako aurrekoen antzekoak –osaerari eta kantitateari dagokienez–, zerbitzuaren edo industriaren berezko jardueraren ondorioz sortzen ez direnak.
- Kategoría horretan sartzen dira, besteak beste, etxeetan sortutako sukaldeko olio erabili, aparatu elektriko eta elektroniko, ehungaiak, pila, metagailu, altzari eta tresnen hondakinak, baita etxeko eraikuntza eta konponketako obra txikien ondoriozko hondakinak eta zaborrak ere.
- Era berean, bide publiko, berdegune, jolas-eremu eta hondartzen garbiketan jasotako hondakinak, etxe-abere hilak eta utzitako ibilgailuak sartzen dira.

Merkataritza-hondakinak

Handizkako zein txikizkako merkataritza-jardueretan sortutakoak dira, jatetxe- eta taberna-zerbitzuetan, bulego eta azoketan eta zerbitzuen sektoreko gainerako jardueretan eragindakoak.

Industria-hondakinak

Industria-jarduerak bere jarduera nagusiaren ondorioz sortutako ekoizpen-, fabrikazio-, eraldaketa-, erabilera-, kontsumo-, garbiketa- edo mantentze-prozesuetako hondakinak.

Elikadura-hondakinak

Hondakin bihurtu diren elikagai guztiak –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002 Erregelamenduaren (EB) 2. artikuluan adierazitako definizioarekin bat datozenak–.

Biohondakina

Landare-jatorriko hondakin biodegradagarriak, etxe, lorategi, parke eta zerbitzuen sektorean sortutakoak; baita etxe, bulego, jatetxe, handizkari, sukaldaritza kolektiboko zerbitzu eta txikizkako kontsumo-establezimenduetatik ateratako elikagai- eta sukalde-hondakinak, besteak beste, eta elikagaiak eraldatzeko instalazioetatik ateratako antzeko hondakinak.



Zabor soltea

Horretarako izendatutako lekuetatik at utzitako hondakinak, naturaguneetan edo hirietan bazterretan botata agertzen direnak eta, hortaz, hasierako egoerara itzuli ahal izateko ohiko edo ezohiko garbiketa eskatzen dutenak.

Ekonomia zirkularra

Produktuen, materialen eta ekonomiaren gainerako baliabideen balioa ahalik eta gehien iraunarazten duen sistema ekonomikoa:

- produkzioan eta kontsumoan zehar erabilera efizientea bultzatuz,
- erabilerak ingurumenean duen inpaktua gutxitzeko,
- eta bizi-ziklo osoan sortzen diren hondakinak eta as-
katzen diren substantzia arriskutsuak minimizatze-
ko, hala dagokionean hondakinen hierarkia aplikatuz.

Ekoizlearen Erantzukizun Hedatua (EEH)

Produktuen ekoizleek produktu baten bizi-zikloaren hondakin-fasearen kudeaketaren gaineko finantza-erantzukizuna edota finantza- eta antolaketa-erantzukizuna beren gain hartzen dutela bermatzeko hartutako neurrien multzoa.

Hondakinen hierarkia

Ingurumen-emitza orokorrik onena lortzeko lehentasun-ordena:

- a) Prebenitzea.
- b) Berrerabiltzeko prestatzea.
- c) Birziklatzea.
- d) Beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne.
- e) Ezabatzea.

Prebentzioa

Substantzia, material edo produktu baten sorkuntzaren eta diseinuaren, produkzioaren, banaketaren eta kontsumoaren fasean hartutako neurriak, honako hauek gutxitzeko:

- Hondakinen kantitatea, baita produktuak berrerabiliz zein produktuen balio-bizitza luzatuz ere.
- Sortutako hondakinek ingurumenean eta gizakien osasunean dituzten inpaktu kaltegarriak, materialen edo energiaren erabilera aurreztearen kontuan hartuta.
- Materialetan eta produktuetan dauden substantzia arriskutsuak.

Berrerabilera

Hondakin ez diren produktuak edo osagaiak hasieran zuten helburu berberarekin berriro erabiltzea ahalbidetzen duen edozein eragiketa.

Berrerabiltzeko prestaketa

Balorizazio-eragiketa bat da; hondakin bihurtu diren produktuak edo produktuen osagaiak egiaztatu, garbitu edo konpondu egiten dira, eta, horrela, aurretiko beste eraldaketarik gabe, berriro erabiltzeko prest uzten dira. Gainera, aplikagarri diren produktu-arau teknikoak eta kontsumo-arauak betetzen badituzte, hondakintzat hartzeari utziko dute.

Birziklatzea

Bai jatorrizko helbururako, bai beste helburu baterako, hondakinen materialak produktu, material edo substantzia bihurtzeko balio duen balorizazio-eragiketa. Horren barruan sartzen da material organikoaren eraldaketa, baina ez balorizazio energetikoa, ezta erregai gisa edo betetze-eragiketetarako erabiliko diren material bihurtzea ere.

Balorizazioa

Hondakina helburu erabilgarri baterako erabiltzea helburu nagusi duen edozein eragiketa, beste material batzuk ordezkatzeko. Bestela, funtzio berezi bat betetzeko erabiliko ziratekeen. Edo hondakina instalazioan, edo, orohar, ekonomian funtzio hori betetzeko prestatua izatea. 7/2022 Legearen II. Eranskinean jasotzen da balorizazio-eragiketen zerrenda ez-zehatza.

Ezabaketa

Balorizazioa ez den eragiketa oro, baita eragiketa horren bigarren ondorio gisa substantzien edo materialen aprobetxamendua –trataturiko hondakinaren pisuaren % 50 gainditzen ez badute– edo aprobetxamendu energetikoa lortzen bada ere. 7/2022 Legearen III. Eranskinean jasotzen da ezabaketa-eragiketen zerrenda ez-zehatza.




II. ERANSKINA: ESKUMENEN BANAKETA

ESKUMENEN BANAKETA	
Estatuko gobernua	Oinarrizko araudia onartzen du (kasu gehienetan, Europako zuzentarauen edukiaren transposizioa egiten du araudi horrek). Hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren eta ekonomia zirkularraren arloko Estatuko estrategiak, planak eta programak onartzen ditu.
Eusko Jaurlaritza	Hondakin mota oro prebenitzeko eta kudeatzeko Autonomia Erkidegoko plana onartzen du. Ekonomia zirkularraren arloko Autonomia Erkidegoko estrategiak onar ditzake.
Foru-aldundiak	Udal-hondakinen foru-planak onartzen dituzte; plan horiek hondakin horien inguruko lurralde historikoko esparru-programazioa garatu behar dute.
Udalak, mankomunitateak eta kuadrillak	Egin behar dutena: • Etxeko hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua beren gain hartu. • 5.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeentzako hondakinak kudeatzeko programak onartu, hondakinak kudeatzeko Autonomia Erkidegoko eta Estatuko planei jarraikiz. Egin dezaketena: • Merkataritza-hondakin ez-arriskutsuak kudeatu. • Ekonomia zirkularreko estrategiak, prebentzio-programak eta, 5.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten toki-erakundeen kasuan, haien eskumeneko hondakinak kudeatzeko programak landu.

7. taula. Udal-hondakinen arloko eskumenen banaketa. Iturria: Geuk egina.



III. ERANSKINA: ARAUDIAREN ETA PLANGINTZAREN IBILBIDE HISTORIKOA



Ibilbide historikoa Europar Batasunean

ARAUDIA		PLANGINTZA
Hondakinei buruzko 75/442 Zuzentaraua	1975	
	1980	
	1985	
Pilei eta metagailuei buruzko 91/157 Zuzentaraua Ontziei buruzko 94/62 Zuzentaraua	1990	1990: Hondakinak kudeatzeko Erkidegoko Estrategia
Hondakinen isurketari buruzko 1999/31 Zuzentaraua	1995	1997: Hondakinak kudeatzeko Erkidegoko estrategiaren berrikuspena
Aparatu elektriko eta elektroniko en hondakinei buruzko 2002/96 Zuzentaraua	2000	2001: Produktuen inguruko politika integratuari buruzko Liburu Berdea
Hondakinei buruzko 2006/12 Zuzentaraua (75/442 Zuzentaraua indargabetzen duena) Pilei buruzko 2006/66 Zuzentaraua (91/157 Zuzentaraua indargabetzen duena) Hondakinei buruzko 2008/98 Zuzentaraua (2006/12 Zuzentaraua indargabetzen duena)	2005	2005: Hondakinen prebentzioari eta birziklatzeari buruzko Estrategia : Urrats bat kontsumo jasangarriaren bidean 2008: EBko biohondakinen kudeaketari buruzko Liburu Berdea 2008: Kontsumo eta produkzio jasangarriari buruzko Ekintza Plana
Aparatu elektriko eta elektroniko en hondakinei buruzko 2012/19 Zuzentaraua (2002/96 Zuzentaraua indargabetzen duena)	2010	2010: Europa 2020: Hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaile baterako Estrategia 2011: Baliabideen erabileran efizientea izango den Europa baterako ibilbide-orria 2013: Ingurumeneko VII. Ekintza Programa Orokorra 2020 2014: Ekonomia zirkular baterantz: 0 hondakineko programa Europarako
2018/849 Zuzentaraua, 2006/66 (pilak) eta 2012/19 (aparatu elektriko eta elektronikoak) Zuzent arauak aldatzen dituen a 2018/850 Zuzentaraua, hondakinen isurketari buruzko 1999/31 Zuzentaraua aldatzen duena 2018/851 Zuzentaraua, hondakinei buruzko 2008/98 Zuzentaraua aldatzen duena 2018/852 Zuzentaraua, ontziei buruzko 94/62 Zuzentaraua aldatzen duena	2015	2015: Zirkulua ixtea: ekonomia zirkularrerako EBko Ekintza Plana . Hainbat zuzent arau aldatzeko proposamenak. 2018: Plastikorako Estrategia 2019: Europako Itun Berdea
Produktu jasangarrien diseinu ekologikoari buruzko 2024/1781 Erregelamendua Kontsumitzaileen ahaldu ntzeari buruzko 2024/825 Zuzent araua Ondasunen konponketari buruzko 2024/1799 Zuzent araua	2020	2020: Ekonomia zirkularrerako Ekintza Plan berria: Europa garbiago eta lehiakorrago baten alde. 2022: Ingurumeneko VIII. Ekintza Programa Orokorra 2030 2022: Ehungaien zirkulartasan eta jasangarritasunerako Estrategia
	2025	

8. taula. Araudiaren eta plangintzaren ibilbide historikoa Europan. Iturria: geuk egina.

1975-1984	1995-2004	2005-2014
Europar Batasunak hondakinen inguruan zuen kezka 1975ean gauzatu zen, Hondakinei buruzko 75/442 Esparru Zuzentaraua onartu zenean. Lege-testu horrek gaur egun guztiz indarrean dauden hainbat alderdi identifikatu zituen: • Hondakinak berreskuratzearen eta berreskuratze-materialak erabiltzearen garrantzia baliabide naturalak babesteko. • Prebentzioaren, berrerabileraren eta berreskuratze material edo energetikoaren aldeko apustua. • “Nork kutsatu, hark ordaindu” printzipioaren aplikazioa, hondakinen ustiapenak estali gabeko kostuen zatiaren inguruan jarduteko.	1997. urtean, 1990ean onartutako hondakinak kudeatzeko Erkidegoko Estrategia aldatu zen. Bestalde, zabortegetan hondakin mota oro uzten zela eta horrek ingurunearen kalitatean inpaktu handia zuela kontuan hartuta, Europar Batasunak hondakinen isurketari buruzko 1999/31 Zuzentaraua onartu zuen. Zuzentarau horrek, beste zenbait alderdiren artean, zabortegetan utzitako udal-hondakin biodegradagarrien kantitatea murriztea ezartzen du, eta aldeztu aurretik tratamendurik izan ez duten hondakinak uztea debekatzen du. XXI. mendeko lehen urteetako nobedade nagusia aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei (AEEH) buruzko 2002/96 Zuzentarauren onarpena izan zen.	2005-2014 aldia 2005ean hondakinen prebentzioari eta birziklatzeari buruzko Estrategia tematikoa onartu zenean hasi zen, eta urrats bat izan zen baliabideen kontsumo jasangarriaren bidean. Estrategia horrek eragin esanguratsua izan zuen hondakinen bi esparru-zuzentarauren berehalako onarpenean. Lehenak (2006/12 Zuzentarauek) 75/442 Zuzentaraua indargabetu zuen 31 urteko indarraldiaren ondoren, baina handik 2 urtera, 2008/98 Zuzentarauek (gaur egun indarrean dagoenak, aldaketak izan baditu ere) indarrak gabe utzi zuen. Zuzentarauren helburu nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: • Hondakin-fasea ez ezik, produktu eta materialen bizi-ziklo osoa ere kontuan hartzea. • Hondakinen balorizazioa eta balorizatzeko materialen erabilera bultzatzea. • Hondakinen kudeaketarako hierarkia betetzeko beharra lege-mailan sendotzea eta, espezifikoki, lehentasunezko alternatiba gisa, prebentzioari eta berrerabiltzeko prestaketari erreparatzea.
1985-1994		
1990ean hondakinak kudeatzeko Erkidegoko lehen Estrategia onartu zen. Handik urte batzuetara, Europar Batasunak araudi espezifiko bat onartu zuen. Araudi horrek udal-hondakinen bi tipologia hartzen zituen eraginpean: bata arrisku handikoa, hala nola pilak (91/157 Zuzentaraua), eta bestea sorkuntza handikoa, hala nola ontziak (94/62 Zuzentaraua), etxeko beirazko, kartoizko, metalezko, plastikozko eta abarrezko ontziak barnean hartuta). Bi zuzentarau horietan, produktua hondakin bihurtzen denean itzultzeko sistema bat edota bilketa-sistema orokor bat ezartzeko aukera aurreikusten da. Gaur egun Ekoizlearen Erantzukizun Hedatu deitzen zaionaren inguruko lehen esperientziak izan ziren.	Egungo “Ekoizlearen Erantzukizun Hedatu” (EEH) izena berariaz jasotzen ez badu ere, Zuzentarau horrek beste urrats bat egin zuen sistema hori sortzeko bidean. Nolanahi ere, araubide horrek lehen urratsak eginak zituen ordurako, pilei eta ontziei buruzko Zuzentarauekin. 	Era berean, azpimarratu beharra dago Zuzentarau horrek legez aitortzen dituela “azpiproduktu” eta “hondakin-izaeraren amaiera” kontzeptuak. Azken termino hori funtsezkoa izan da udal-hondakinetatik berreskuratutako materialak (metala, beira, plastikoa, kartoia eta abar) produkzio-zirkuituan hondakin gisa sartu

ordez jatorrizko lehengaien antzeko baldintzetan sar daitezen ahalbidetzeko. Pilei dagokienez, 2006/66 Zuzentarauak aurreko 91/157 Zuzentaru indargabetu zuen 15 urtetan aplikatu ondoren. Aldi horren azken urteetan, plangintzaren arloko berritasunak nabarmendu ziren bereziki: • 2008. urtean, biohondakinen kudeaketari buruzko Liburu Berdea eta kontsumo eta produkzio jasangarriari buruzko Ekintza Plana onartu ziren. • 2010. urtean, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaile baterako Europa 2020 Estrategia. • 2011. urtean, baliabideen erabileran efizientea izango den Europa baterako ibilbide-orria. • 2013. urtean, Ingurumeneko VII. Ekintza Programa Orokorra 2020 ("Ongi bizi, gure planetaren mugak errespetatuz"). • 2014. urtean, "Ekonomia zirkularrerako bidean: zero hondakineko programa Europarako" Komunikazioa. Hondakinak baliabidetzat hartzen dituen ikuspegia sendotzera zuzendutako jarduera handia ikus daiteke. Ikuspegi hori beti hartu da kontuan arau-esparruan eta aurretiazko plangintzetan, baina orduan hondakinen inguruko Europako politikaren ardatz bihurtu zen, termino berri bati esker: "ekonomia zirkularra". Aldi horretako azken urteetan, 10 urtetan aplikatu ondoren aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 2002/96 Zuzentaru indargabetzen duen	2012/19 Zuzentaruaren onarpena nabarmendu da. 2015-2024 Aldi horretan, ikuspegia ekonomia zirkularrerara aldatzen jarraitu zen, eta "Zirkulua ixtea: ekonomia zirkularrerako EBko Ekintza Plana" ("ekonomia zirkularreko pakete" esan ohi zaiona) onartu zen 2015ean. Ekintza Plan horrekin batera, 4 zuzentaru ikuspegi berrira egokitzeko aldatzen zituzten zuzentaruak onartu ziren. Aldi horretako plangintza garrantzi handiko hainbat tresna estrategikorekin osatu zen: • 2018an, Plastikorako Estrategia. • 2019an, Europako Itun Berdea. • 2020an, Ekonomia zirkularrerako Ekintza Plan berria: Europa garbiago eta lehiakorrago baten alde. • 2022an, ehungaien zirkulartasun eta jasangarritasunerako Estrategia eta Ingurumeneko VIII. Ekintza Programa Orokorra 2030. Bestalde, lege-esparruari dagokionez, honako hauek nabarmentzen dira: • Kontsumitzaileak ahalduztzeko 2024/825 Zuzentaru; haren Estatuko ordenamendu juridikorako transposizioa 2026/03/27rako egin behar da beranduenez. • Ondasunen konponketa sustatzeko arau komunak ezartzen dituen 2024/1799 Zuzentaru. Zuzentaru horren transposizioa ere 2026an egin behar da (2026/07/31).	• Produktu jasangarrien diseinu ekologikoari buruzko 2024/1781 Zuzentaru; lehen Lan Planean (2025/04/19a baino lehen onartu beharrekoan) landu beharreko lehentasunezko 11 produktuen artean, balio-bizitzaren amaieran udal-hondakinetan dauden hainbat gai jasotzen ditu: – Ehungaiak, batez ere jantziak eta oinetakoak. – Altzariak, koltxoak barne. – Informazioaren eta komunikazioaren teknologiko produktuak eta beste gai elektroniko batzuk. 
---	---	---




Ibilbide historikoa Espainian

ARAUDIA		PLANGINTZA
42/1975 Legea, hiriko zabor eta hondakin solido ei buruzkoa	1975	
	1980	
20/1986 Legea, hondakin arriskutsuei buruzkoa	1985	
833/1988 Errege Dekretua, hondakin arriskutsuei buruzkoa		
	1990	
952/1997 Errege Dekretua, hondakin arriskutsuei buruzkoa	1995	
11/1997 Legea, ontziei buruzkoa		
10/1998 Lege Orokorra, hondakinei buruzkoa		
782/1998 Errege Dekretua, Legea, ontziei buruzkoa		
1481/2001 Errege Dekretua, hondakinak zabortegian ezabatzeari buruzkoa	2000	
208/2005 Errege Dekretua, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa	2005	Hondakinen Plan Nazional Integratua 2007-2015
106/2008 Errege Dekretua, pilei/metagailuei buruzkoa		
943/2010 Errege Dekretua, pilei/metagailuei buruzkoa	2010	Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programa 2014-2020
22/2011 Lege Orokorra, hondakinei buruzkoa		
110/2015 Errege Dekretua, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa	2015	Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (PEMAR) 2016-2022
710/2015 Errege Dekretua, pilei/metagailuei buruzkoa		
646/2020 Errege Dekretua, hondakinak zabortegian ezabatzeari buruzkoa	2020	Espainiako Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030 Ekonomia Zirkularreko Ekintza Plana 2021-2023 Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (PEMAR) 2024-2035
7/2022 Lege Orokorra, hondakinei buruzkoa		
1055/2022 Errege Dekretua, Legea, ontziei buruzkoa		
	2025	1/2025 Legea, elikagaien xahuketari buruzkoa

9. taula. Araudiaren eta plangintzaren ibilbide historikoa Estatuan. Iturria: geuk egina.

1975-1984	1985-1994	
Hiriko zabor eta hondakin solido ei buruzko 42/1975 Legeak hondakin mota hori biltzeko eta kudeatzeko oinarritzko baldintzak arautu zituen, eta baliabideen aprobetxamenduari buruzko kapitulu espezifiko bat aurreikusten zuen.	1986. aurrera, hondakin arriskutsuei erreparatu zitzairen, eta hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko oinarritzko 20/1986 Legea eta, handik bi urtera, hura garatzen duen Errege Dekretua onartu ziren.	Hortaz, etxeko hondakin jakin batzuen kudeaketa arautzen hasi zen, hala nola pilena, fluoreszenteena edo hondakin elektriko eta elektroniko jakin batzuenak.

1995-2004 1997. urtean ontziei eta ontzien hondakinei buruzko 11/1997 Legea onartu zen. Lege horrek Estatuko ordenamendu juridikora eraman zuen 94/62 Zuzentaraua, eta udal-hondakinetan hain ohikoak diren etxeko ontzien inguruko Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuaren sistema deitzen zaionaren oinarriak sartu zituen. Horixe izan zen orduan kudeaketa-sistema integratu deitutakoen hazia (hala nola ECOEMBES edo ECOVIDRIO izenekoena). 1998. urtean, hondakinei buruzko 10/1998 Lege Orokorrak 91/156 Zuzentzarauaren transposizioa egin zuen, eta hondakin mota ororen ikuspegi orokorra txertatu zuen. Hortaz, hiri-hondakin solidoei eta hondakin arriskutsuei buruzko aurretiazko arauak indargabetu zituen (42/1975 Legea eta 20/1986 Legea, hurrenez hurren). 2001. urtean, hondakinak zabortegian utzita ezabatzeari buruzko 1481/2001 Errege Dekretuak honako hau ezarri zuen berariaz: <i>“aldeztatik tratamenduren bat jaso duten hondakinak baino ezin izango dira zabortegian utzi”</i>, salbuespen espezifikoaren kasuan izan ezik.	• Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programa 2014-2020. Hondakin mota espezifikoari lotutako araudia, hala nola hondakin elektriko eta elektronikoei buruzkoa (2005) eta pila eta metagailuei buruzkoa (2008 eta 2010) Europako zuzentzarauen transposizio-beharren arabera bilakatu zen. 2011. urtean, ordura arte indarrean zegoen 10/1998 Legea indargabetzen duen eta 2008/98 Zuzentzaraua Estatuko ordenamendu juridikora eramaten duen hondakinei buruzko 22/2011 Lege Orokorra onartu zen. Lege horren berritasun nagusiak honako hauek izan ziren: • Prebentzioa aipatzen zuen hondakinen hierarkiako lehen aukera gisa, eta lotutako helburu kuantitatibo bat sartu zuen: 2020an hondakinen sorkuntza % 10 murriztea, 2010ekoarekin alderatuta. • Kudeaketa-aukera gisa “berrerabiltzeko prestaketa” txertatu zuen, birziklatzearen eta beste balorizazio mota batzuen aurretik. • 2020. urterako berrerabiltzeko prestaketara eta birziklatzera bideratutako etxeko eta merkataritzako hondakinen kuantitatea % 50era iristeko eskatzen zuen.	2020. urtean, hondakinak zabortegian utzita ezabatzea arautzen duen 646/2000 Errege Dekretu berria onartu zen, 19 urtetan 1481/2001 Errege Dekretua aplikatu ondoren. 2022. urtean, gaur egun aplikatu beharreko hondakinei buruzko 7/2022 Legeak 22/2011 Legea indargabetu zuen 11 urteko indarraldiaren ondoren. 2022an, halaber, ontziei eta ontzien hondakinei buruzko 1055/2022 Dekretua onartu zen. Dekretu horren berritasun nagusia izan zen merkataritza- eta industria-ontziak RAP sistematik salbuesita geratzeko aukera baliogabetu zuela. 2025. urtean, elikagaien galera eta xahuketari buruzko 1/2025 Legeak korronte horren inguruko jarduna indartu zuen. Plangintzaren arloan, honako hauek onartu dira hamarkada honetan: • Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Planak (PEMAR), 2016-2022 eta 2024-22035. • Ekonomia Zirkularraren Espainiako 2030eko Estrategia eta haren barruko 2021-2023 aldiko Ekintza Plana.
2005-2014 Hondakinei buruzko 10/1998 Lege Orokorrean jasotako mandatuaren ondorioz, hondakinei buruzko Estatuko planak onartzen hasi ziren, eta, zehazki, honako hauek: • Hondakinen Plan Nazional Integratua 2007-2015.	2015-2024 2015. urtean, hondakin elektriko eta elektronikoen eta pila eta metagailuen arloko araudi berria onartu zen (110/2015 Errege Dekretua eta 710/2015 Errege Dekretua, hurrenez hurren).	



Ibilbide historikoa Euskadin

ARAUDIA		PLANGINTZA
	1975	1979: Bizkaiko hiri-hondakinen Plana
	1980	1982: Gipuzkoako hiri-hondakinen Plana 1984: Arabako hiri-hondakinen Plana
	1985	
	1990	1994: EAEko hondakin berezien Plana
3/1998 Lege Orokorra, ingurumena babestekoa	1995	1995: Bizkaiko 1979ko hiri-hondakinen Planaren berrikuspena 1997: Bizkaiko hiri-hondakinen Plana 1997-2001 1997: Gipuzkoako hiri-hondakinen Plana 1997-2000 1998: Arabako hiri-hondakinen Plana 1998-2001
	2000	2002: Gipuzkoako hiri-hondakinen Plana 2002-2016 2003: EAEko hondakin arriskutsuen Plana 2003-2006
49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena	2005	2005: Bizkaiko hiri-hondakinen Plana 2005-2016 2006: Arabako hiri-hondakinen Plana 2006-2016 2006: Hiri-hondakinen inguruko EAEko jarraibideak 2008: EAEko hondakin arriskutsuen Plana 2008-2011 2008: Gipuzkoako hiri-hondakinen Planaren aurrerapen-dokumentua 2008-2016
1/2015 instrukzioa, komunitate-konpostajeari buruzkoa	2010	2011: Eusko Jaurlaritzaren EKPB (Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea) Programa 2011-2014
63/2019 Dekretua, komunitateko konpostajeari buruzkoa Komunitateko konpostajeari buruzko 63/2019 Dekretua deuseztatzen duen ediktua	2015	2015: EAEko hondakinen Plana 2020 2016: EAEko EKPB Programa 2020 2016: Bizkaiko 2005-2016 aldiko hiri-hondakinen Planaren luzapena 2020ra arte 2016: Gipuzkoako 2002-2008 aldiko hiri-hondakinen Planaren eta 2008-2016 aldiko Aurrerapen Dokumentuaren luzapena 2018: Arabako hiri-hondakinen Plana 2018-2030 2019: Gipuzkoako hiri-hondakinen Plana 2019-2030 2019: Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030
10/2021 Legea, ingurumen-administrazioarena	2020	2021: Euskadiko hondakinen Plana 2030 2021: Euskadiko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana 2024 2021: Euskadiko EKPB Programa 2030 2024: Bizkaiko Udal Hondakinen Plana 2030
	2025	

10. taula. Araudiaren eta plangintzaren ibilbide historikoa Euskadin. Iturria: geuk egina.

1975-1984

Lehen urte horietan (1979an Bizkaian, 1982an Gipuzkoan eta 1984an Araban), **hiri-hondakin solidoak kudeatzeko** lehen **lurralde-plan zuzentzaileak** garatu ziren, hiriko zabor eta hondakin solidoei buruzko Estatuko 42/1975 Legean ezarritakoaren babesean.

1985-1994

Hamarkada horretan, arreta hondakin arriskutsuetara bideratu zen nagusiki, eta, Euskadiri dagokionez, azpimarratu beharra dago 1994an **hondakin berezien Plana** onartu zela. Era berean, etxeko hondakin arriskutsuei erreparatu zitzairen, hala nola pilei eta etxetresna elektriko jakin batzuei (gas fluordunen kantitate handia duten hozkailuei, adibidez).

Lehen garbiguneak irekitzeak (hala nola Arrasatekoa eta Oñatikoa) etxeko hondakin arriskutsuen bilketa erraztu zuen.

1995-2004

Hamarkada horren lehen urteetan, hainbat berritasun gertatu ziren lurralde-plangintzetan:

- 1995. urtean, Bizkaia bere estrategia berrikusi zuen Europar Batasunak zehaztutako jarraibideetan oinarrituta, eta 1997an Bizkaiko hiri-hondakin solidoak kudeatzeko 1997-2001 aldiko Plan Integrala aplikatzen hasi zen.
- 1997. urtean, halaber, Gipuzkoako hiri-hondakin solidoak kudeatzeko 1997-2000 aldiko Plan Orokorra aplikatzen hasi zen.

- 1998. urtean, Arabako hiri-hondakinak Kudeatzeko 1998-2001 aldiko Plana indarrean jarri zen.

Plan horiek onartu ondorengo urteetan, haiek inplementatzeko urratsak egin ziren hainbat jarduketaren bidez. Jarduketa horien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Tratamendu-azpiegitura batzuk etetea, hala nola Akeiko (Arrasate) zabortegia eta erraustegia.
- Ontziak tratatzeko instalazioak abian jartzea: Amorebieta-Etxano, Urnieta, Legazpi eta Vitoria-Gasteiz.

Arau-arloan, **EAEko ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorra** onartu zen. Lege horren atal espezifiko bat hiri-hondakin solidoei eskainita dago, eta, bertan, honako alderdi hauek ezartzen dira, besteak beste:

- Eusko Jaurlaritzak hiriko hondakin solidoak kudeatzeko esparru-plangintza prestatu behar du.
- Foru-aldundiek hiri-hondakin solidoen kudeaketaren esparru-plangintza garatu behar dute beren Lurralde Historikoan, eta udal-jarduerak koordinatu behar dituzte, arlo horretan zerbitzuak era osatuan betetzeko.
- Administrazio publiko eskudunek ontzien erabileraren murrizketa, produktuen berrerabilera, hondakinen minimizazioa, gaikako bilketako sistemen ezarpena eta material birziklatuak dituzten produktuen eskuratzeko lehenetsiko duen erosketa publikoen politika baten ezarpena sustatzeko ekintzak garatu behar dituzte.

2002. urtean, Gipuzkoan Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 aldiko Plan Orokorra onartu zen, eta 2003an etxeko konpostatzea sustatzen hasi zen, Sasieta Mankomunitateko esperientziaren bidez.

2005-2014

Aldi horretako lehen urteetan, berritasun gehiago izan ziren plangintzaren arloan:

- 2003. urtean, Eusko Jaurlaritzak EAEko hondakin arriskutsuak kudeatzeko 2003-2006 aldiko Plana onartu zuen.
- 2005. urtean, Bizkaia hiri-hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala (2005-2016) onartu zuen.
- 2006. urtean, Arabako hiri-hondakinak Kudeatzeko 2006-2016 aldiko Plana onartu zen.
- 2006an, halaber, Eusko Jaurlaritzak EAEko hiri-hondakinak planifikatu eta kudeatzeko jarraibideak argitaratu zituen, 3/1998 Legeak emandako eskumenari jarraikiz.
- 2008. urtean, Eusko Jaurlaritzak EAEko hondakin arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2008-2011 aldiko Plana onartu zuen.
- 2008an, halaber, Gipuzkoak 2008-2016 aldiko Aurrerapen Dokumentua onartu zuen. Dokumentu hori indarrean zegoen Planaren berrikuspen gisa sortu zen, baina berritasun garrantzitsuak ekarri zituen.



Plangintza-tresna berri horien onarpenak hainbat berritasun ekarri zituen azpiegituren arloan, hala nola:

- Bilboko energia-balorizazioko instalazioa (2005), Gasteizko Tratamendu Mekaniko-Biologikoko (TMB) instalazioa (2007) eta Azpeitiko konpostatze-instalazioa (2008) abian jarri ziren.
- Instalazio batzuk itxi egin ziren, hala nola Bermeoko erraustegia (2006) eta Tolosako San Blas (2007) eta Donostiako San Marko (2008) zaborteziak.

Arau-arloan, **hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Autonomia Erkidegoko 49/2009 Dekretuak**

Autonomia Erkidegoko arautzen du 1481/2001 Errege Dekretuak Estaturako lantzen duena. Azpimarratu beharra dago berariaz debekatzen dela zaborteziaren honako hauek onartzea: *“balorizatu daitezkeen hondakinak, hala nola beira, paper-kartoia, ontziak, eraikuntza eta eraispentako hondakinak, egurra, tresna elektriko eta elektronikoak eta abar”*.

Bestalde, 2011. urtean, Eusko Jaurlaritzak **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen (EKPB) Programa** 2011-2014 onartu zuen.

Aldi horretako azken urteetan, beste azpiegitura batzuen eraikuntza nabarmendu zen. Adibidez:

- 2009: Irungo tamaina handiko hondakinaren eta ehun-hondakinaren instalazioa.
- 2010: Ortuellako tamaina handiko hondakinaren eta aparatu elektriko

eta elektronikoaren hondakinaren (AEEH) instalazioa.

- 2011: Bilboko konpostatze-instalazioa.
- 2012: Mungiako berrerabilerarako prestatzeko instalazioa.
- 2013: Bilboko Tratamendu Mekaniko-Biologikoko (TMB) instalazioa.
- 2014: Arrasateko aparatu elektriko eta elektronikoaren hondakinaren, tamaina handiko hondakinaren eta ehun-hondakinaren instalazioa.

Azken urte horietan, halaber, frakzio organikoaren inguruko zuzeneko eta zeharkako hainbat eredu eta ekimen aplikatu ziren, hala nola:

- 2009: Frakzio organikoaren edukiontzia ezarpena Aretxabaletan, Azkoitian, Azpeitian, Zarautzen, Zumaian eta Donostian (Amara auzoan).
- 2009: Atez ateko bilketaren hasiera Usurbilen.
- 2012: Frakzio organikoaren edukiontzia ezartzeko laguntzak Bizkaian.
- 2013: Frakzio organikoaren edukiontzia abiaraztea Gasteizen.
- 2014: Erabiltzailea identifikatzeko sistema bat duen itxiera-instalazioa Tolosaldeko errefusaren edukiontzian.

2015-2024

2015ean:

- Eusko Jaurlaritzak EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Plana onartu zuen. Plan horrek hondakin-fluxu guztiak jasotzen ditu, izaera edozein izanik ere (etxeako, merkataritzakoak, eraikuntzakoak edo industriakoak).

- **Komunitate-konpostajeari buruzko 1/2015 Instrukzioa** onartu zen. Instrukzio horrek konpostaje mota hori ezartzeko administrazio-prozedura arautzen du.

2016an:

- Eusko Jaurlaritzak **Euskadiko Erosketa Publikoaren 2020ko Programa** onartu zuen.
- Bizkaia 2020. urtera arte luzatu zuen bertako hiri-hondakinak Kudeatzeko 2005-2016 aldiko Plan Integrala.
- Gipuzkoan, Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 aldiko Plan Orokorren eta 2008-2016 aldiko Aurrerapen Dokumentuaren luzapena ezarri zen.

2018an:

- Araban, Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2017-2030 aldiko Plana aplikatzen hasi zen.
- Epeleko (Bergara) konpostatze-instalazioa inauguratu zen.

2019an, honako hauek nabarmendu ziren:

- Gipuzkoako hiri-hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldiko Plan Orokorra indarrean jarri zen.
- Tratamendu Mekaniko-Biologikoko (TMB), balorizazio energetikoko, biometanizazioko eta zepak tratatzeko instalazioak abiarazi ziren Zubietan (Donostia).
- **63/2019 Dekretua, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen** onartu zen. Hala ere, 2021ean ediktu batek

baliogabetu egin zuen, zuzenbidearekin bat ez zetorrelako.

- **Euskadiko Ekonomia Zirkularraren 2030eko Estrategia** onartu zen.

2021ean, Eusko Jaurlaritzaren jarduera nabarmendu zen, eta honako hauek onartu zituen:

- **10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena**, hondakinen arloko eskumen-banaketari eusten diona eta erosketa publiko berdeari buruzko betebeharrak espezifikatu ezartzen dituenak, hondakinen eremuari eragiten diotenak.
- **Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako Programa.**
- **Euskadiko hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana.**
- **2024ko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana**, 2030 Estrategiak aldi horretarako dituen helburuak zehazten dituena.

2024an, honako hauek nabarmendu ziren:

- Bizkaiko toki-eskumeneko hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plan Integrala onartu zen.
- Urnietako tamaina handiko hondakinen eta aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen instalazioa eta Errenteriako ehun-hondakinen instalazioa abian jarri ziren.

Azken 10 urte horietan, halaber, honako hauek gertatu ziren:

- Hainbat zabortege itxi ziren Gipuzkoan, hala nola Sasieta (2015), Azpeitiko Lapatz (2016) eta Elgoibarko Urruzuno (2022).
- Toki-mailan beste tresna batzuk bultzatu ziren, hala nola bigarren eskuko azokak, konponketako gune eta saltokien hedapena, etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko garbigune mugikorren instalazioa eta abar.

IV. ERANSKINA: UDAL-HONDAKINEN OSAERA

Udal-hondakinen osieran, frakzio nagusia biohondakinena da (308.036 t, % 31,41), eta, haren atzetik, papera/kartoia (186.402 t, % 19,01), ontzi arin plastikoak eta metalikoak (124.354 t, % 12,68) eta beirazko ontziak (86.131 t, % 8,78) kokatu dira.

Datu horiek egungo gizartearen berezko ezaugarriak islatzen dituzte:

- Biohondakinak, etxeetan ez ezik, beste leku batzuetan ere sortzen dira, hala nola frutadendetan, jantoki kolektiboetan eta abar. Hondakin horiei inausketa- eta lorezaintza-hondakinak gehitu behar zaizkie. Izan ere, familia bakarreko eta bi familiako etxebizitza ugari edo belarrezko kirol-zelaiak dituzten udalerrri jakin batzuetan ekarpen handia egin dezakete.
- Adierazitako gainerako korranteak hainbat materialezko ontziak dira nagusiki (kartoizkoak, plastikozkoak, metalezkoak edo beirazkoak). Errealitate hori oso ohikoa da Europako herrialde gehienetan. Hori dela eta, ontziak EBko erronka nagusietako bat dira.
- Ontziratze materialen artean, azken urteotan kartoia pisu esanguratsua hartzen ari da, merkataritza elektronikoen gorakadaren ondorioz. Izan ere, zenbaitetan enbalajerako kartoien pisua merkaturatutako produktuarena baino handiagoa da.

Aipatutako alderdiez gain, kontuan hartu behar da materialen dentsitatearen eragina, hondakinen estatistikak ez baitaude bolumen-unitateetan oinarrituta, pisu-unitateetan baizik (kilogramoetan eta tonetan).

Ildo horretan, pertzepzio orokorraren arabera, etxean sortzen diren plastikozko ontzien hondakinen kantitatea frakzio organikoko hondakinena baino handiagoa da. Hala ere, ikus daitekeenez, hondakin organikoen dentsitate handia dela eta, hondakin horiek dira sortzen den frakzio nagusia.

Horrek eragina du, halaber, legezko helburuen betetze-mailan, haiek ere pisu-unitateetan neurtzen baitira. Proportzionalki, toki-erakunde batek birziklatze-tasan lortuko duen hobekuntza handiagoa izango da jarduterakoan lehentasuna ontzi plastikoei eta metalikoei eman ordez biohondakinei ematen badie.



Hondakina	Tonak	%	Kg/ biztanle
Ontzi arinak	124.354	% 12,68	57
Beirazko ontziak	86.131	% 8,78	39
Etxeko hondakin arriskutsuak	1.883	% 0,19	1
AEEHak	15.847	% 1,62	7
Biohondakinak	308.036	% 31,41	140
Papera/kartoia	186.402	% 19,01	85
Ontziak ez diren metalak	6.301	% 0,64	3
Egurra	62.398	% 6,36	28
Pila eta bateria arriskutsuak	525	% 0,05	0
Pila ez-arriskutsuak	188	% 0,02	0
Ehungaiak	50.621	% 5,16	23
Beste nahasi batzuk	572	% 0,06	0
Pneumatikoak	239	% 0,02	0
Tamaina handikoak	26.197	% 2,67	12
Sukaldeko olioak	1.293	% 0,13	1
Ontziak ez diren plastikoak	28.500	% 2,91	13
Abandonatutako ibilgailuak	0	% 0,00	0
Erradiografiak	2	% 0,00	0
Sendagaiak	729	% 0,07	0
Fluoreszenteak	187	% 0,02	0
Beste batzuk	80.305	% 8,19	37
Guztira	980.711	% 100,00	446

11. **taula.** Sorkuntza Euskadin, hondakin motaren arabera.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

V. ERANSKINA: SORKUNTZARI ETA KUDEAKETARI BURUZKO DATU BANAKATUAK

Hondakina	Sorkuntza	Gaikako bilketa (%)	Berrerabiltzeko prestaketa	Konpostatzea	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Galerak	Biltegitratzea	Ezabaketa
									
Ontzi arinak	124.354	% 43,25	0	0	48.202	37.032	0	2.181	36.940
Beirazko ontziak	86.131	% 74,08	0	0	62.452	1.916	194	903	20.667
Etxeko HAK	1.883	% 32,66	0	0	542	945	0	106	291
AEEHak	15.847	% 91,93	0	0	13.106	442	0	110	2.189
Biohondakinak	308.036	% 28,09	0	83.595	0	105.241	82.550	8.181	28.468
Papera/kartoia	186.402	% 68,95	0	0	126.918	42.130	0	1.667	15.688
Ontziak ez diren metalak	6.301	% 28,07	0	0	2.962	0	0	167	3.172
Egurra	62.398	% 84,76	0	0	53.035	4.943	0	154	4.266
Pila eta bateria arriskutsuak	525	% 66,70	0	0	173	82	0	7	263
Pila ez-arriskutsuak	188	% 100	0	0	93	2	0	0	94
Ehungaiak	50.621	% 17,98	5.472	0	2.089	24.892	0	1.227	16.942
Beste nahasi batzuk	572	% 100	0	0	423	63	0	0	86
Pneumatikoak	239	% 100	31	0	106	102	0	0	0
Tamaina handikoak	26.197	% 92,58	201	0	9.353	14.741	0	272	1.630
Sukaldeko olioak	1.293	% 100	0	0	58	1.091	131	0	13
Ontziak ez diren plastikoak	28.500	% 19,42	0	0	7.090	12.475	0	615	8.320
Abandonatutako ibilgailuak	0	% 0	0	0	0	0	0	0	0
Erradiografiak	2	% 100	0	0	0	2	0	0	0
Sendagaiak	729	% 32,24	0	0	159	233	0	48	289
Fluoreszenteak	187	% 86,48	0	0	161	7	0	3	15
Beste batzuk	80.305	% 0	0	0	0	51.355	0	2.042	26.907
Guztira	980.711	% 45,31	5.703	83.595	326.923	297.693	82.875	17.683	166.240

12. taula. Sorkuntza, gaikako bilketa eta tratamendu mota EUSKADIN, hondakin motaren arabera. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

Hondakina	Sorkuntza	Gaikako bilketa (%)	Berrerabiltzeko prestaketa	Konpostatzea	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Galerak	Biltegitratzea	Ezabaketa
									
Ontzi arinak	21.797	% 39,26	0	0	9.691	86	0	0	12.021
Beirazko ontziak	10.586	% 80,19	0	0	8.855	0	0	0	1.731
Etxeko HAK	299	% 44,92	0	0	61	59	0	0	179
AEEHak	2.842	% 82,68	0	0	2.114	36	0	0	692
Biohondakinak	48.163	% 25,16	0	10.922	0	898	14.826	0	21.516
Papera/kartoia	19.889	% 58,49	0	0	12.886	0	0	0	7.003
Ontziak ez diren metalak	805	% 36,02	0	0	275	0	0	0	529
Egurra	3.436	% 64,81	0	0	2.373	0	0	0	1.063
Pila eta bateria arriskutsuak	121	% 85,42	0	0	51	1	0	0	69
Pila ez-arriskutsuak	0	% 0,00	0	0	0	0	0	0	0
Ehungaiak	5.382	% 21,62	764	0	311	88	0	0	4.219
Beste nahasi batzuk	81	% 100	0	0	60	9	0	0	12
Pneumatikoak	67	% 100	9	0	30	29	0	0	0
Taimana handikoak	4.353	% 100	44	0	2.786	44	0	0	1.480
Sukaldeko olioak	331	% 100	0	0	33	285	0	0	13
Ontziak ez diren plastikoak	1.849	% 10,22	0	0	179	0	0	0	1.669
Abandonatutako ibilgailuak	0	% 0	0	0	0	0	0	0	0
Erradiografiak	1	% 100	0	0	0	1	0	0	0
Sendagaiak	75	% 46,40	0	0	23	11	0	0	40
Fluoreszenteak	23	% 96,91	0	0	22	0	0	0	1
Beste batzuk	12.208	% 0,00	0	0	0	0	0	0	12.208
Guztira	132.307	% 39,41	817	10.922	39.752	1.546	14.826	0	64.444

13. taula. Sorkuntza, gaikako bilketa eta tratamendu mota ARABAN, hondakin motaren arabera. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

Hondakina 	Sorkuntza	Gaikako bilketa (%)	Berrerabiltzeko prestaketa	Konpostatzea	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Galerak	Biltegitratzea	Ezabaketa
Ontzi arinak	62.085	% 33,48	0	0	19.153	22.460	0	133	20.338
Beirazko ontziak	42.233	% 68,51	0	0	28.034	0	101	43	14.055
Etxeko HAK	430	% 31,41	0	0	135	182	0	1	112
AEEHak	7.649	% 100	0	0	6.882	118	0	0	649
Biohondakinak	146.233	% 13,47	0	19.066	0	76.150	43.656	409	6.952
Papera/kartoia	114.925	% 68,75	0	0	76.967	31.050	0	116	6.792
Ontziak ez diren metalak	3.129	% 11,89	0	0	873	0	0	9	2.247
Egurra	38.748	% 81,16	0	0	31.449	4.073	0	24	3.203
Pila eta bateria arriskutsuak	332	% 68,63	0	0	112	66	0	0	153
Pila ez-arriskutsuak	129	% 100	0	0	64	1	0	0	65
Ehungaiak	33.800	% 14,22	2.851	0	1.077	17.056	0	94	12.723
Beste nahasi batzuk	18	% 100	0	0	14	2	0	0	3
Pneumatikoak	0	% 0,00	0	0	0	0	0	0	0
Tamaina handikoak	13.901	% 100	14	0	2.655	11.232	0	0	0
Sukaldeko olioak	533	% 100	0	0	14	447	73	0	0
Ontziak ez diren plastikoak	19.239	% 12,93	0	0	3.609	9.069	0	54	6.507
Abandonatutako ibilgailuak	0	% 0	0	0	0	0	0	0	0
Erradiografiak	1	% 100	0	0	0	1	0	0	0
Sendagaiak	215	% 57,45	0	0	84	97	0	0	35
Fluoreszenteak	88	% 100	0	0	88	0	0	0	0
Beste batzuk	53.803	% 0	0	0	0	43.596	0	174	10.034
Guztira	537.493	% 39,14	2.865	19.066	171.208	215.601	43.830	1.056	83.868

14. taula. Sorkuntza, gaikako bilketa eta tratamendu mota BIZKAIAN, hondakin motaren arabera. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

Hondakina 	Sorkuntza	Gaikako bilketa (%)	Berrerabiltzeko prestaketa	Konpostatzea	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Galerak	Biltegitratzea	Ezabaketa
Ontzi arinak	40.472	% 60,39	0	0	19.358	14.486	0	2.048	4.581
Beirazko ontziak	33.311	% 79,20	0	0	25.563	1.916	92	860	4.881
Etxeko HAK	1.154	% 29,95	0	0	346	704	0	105	0
AEEHak	5.357	% 85,30	0	0	4.111	288	0	110	848
Biohondakinak	113.640	% 48,14	0	53.607	0	28.193	24.068	7.772	0
Papera/kartoia	51.588	% 73,42	0	0	37.065	11.079	0	1.551	1.894
Ontziak ez diren metalak	2.367	% 46,76	0	0	1.813	0	0	158	396
Egurra	20.214	% 95,05	0	0	19.213	871	0	131	0
Pila eta bateria arriskutsuak	73	% 26,86	0	0	10	15	0	7	41
Pila ez-arriskutsuak	59	% 100	0	0	29	0	0	0	29
Ehungaiak	11.438	% 27,37	1.857	0	701	7.747	0	1.133	0
Beste nahasi batzuk	472	% 100	0	0	349	52	0	0	71
Pneumatikoak	172	% 100	22	0	76	74	0	0	0
Tamaina handikoak	7.943	% 75,53	143	0	3.912	3.466	0	272	150
Sukaldeko olioak	429	% 100	0	0	11	359	58	0	0
Ontziak ez diren plastikoak	7.411	% 38,57	0	0	3.302	3.406	0	560	143
Abandonatutako ibilgailuak	0		0	0	0	0	0	0	0
Erradiografiak	0		0	0	0	0	0	0	0
Sendagaiak	439	% 17,49	0	0	52	125	0	48	214
Fluoreszenteak	76	% 67,67	0	0	51	7	0	3	14
Beste batzuk	14.294	% 0	0	0	0	7.759	0	1.869	4.666
Guztira	310.912	% 58,51	2.022	53.607	115.963	80.547	24.219	16.626	17.928

15. taula. Sorkuntza, gaikako bilketa eta tratamendu mota GIPUZKOAN, hondakin motaren arabera. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko Inbentarioa.

VI. ERANSKINA: LURRALDE-PLAN BAKOITZEAN AURREIKUSITAKO EKINTZAK



ARABA	
P1 Gobernamendu eta neurri estrategikoetako programa	
P1.1 Erakundearteko lankidetza eta koordinazio agenda 1. ekintza. Gobernamendu eredu berria eta integratua. 2. ekintza. Arabako lurraldearteko eta lurraldez gaindikoa lankidetza eta koordinazio agenda. 3. ekintza. Foru-tasen aldaketa goiz jakinarazteko protokoloa. 4. ekintza. Egiteke dauden alderdi juridikoak eta eskumenekoak antolatu eta erregularizatzea. P1.2 Ekonomia eta finantza zein zerga tresnen agenda 5. ekintza. Ekonomia eta finantza eredu bateratu eta homogeneoa. 6. ekintza. Fiskalitate eredu bateratua. 7. ekintza. Kontratazio eta erosketa jasangarri eta berritzaile publikoa eta pribatua. 8. ekintza. Jarduera estrategikoak finantzatzeko hitzarmena. P1.3 Informazio eta ezaguera tresnen agenda kudeaketan eta erabakietan laguntzeko 9. ekintza. Urteko inbentarioaren prestaketa arintzea. 10. ekintza. Bi urteko karakterizazioak. 11. ekintza. Kuadrilletan zikloak ixteko aukerak. 12. ekintza. Prestakuntza iraunkorreko programa bateratua. 13. ekintza. Ingurumen inpaktuen eta pasiboen azterketa. 14. ekintza. Hiri hondakinen ekobarometroa. 15. ekintza. Hiri hondakinen Behatokia. 16. ekintza. Esperientzia pilotuak eta demostrazio proiektuak.	P1.4 Informazio, prestakuntza, kontzientziazio eta sentsibilizazio tresnen agenda 17. ekintza. Informazioko weba eta kanal digital bateratuak. 18. ekintza. Informazio, prestakuntza, kontzientziazio eta sentsibilizaziorako estrategia bateratu eta koordinatua. 19. ekintza. Pizgarri ereduak. 20. ekintza. “In situ” prestakuntza programak azpiegiturretan. 21. ekintza. Arabako tokiko merkataritza erantzukide egitea. 22. ekintza. Hezkuntza material berritzaileak. 23. ekintza. Kanpainen efizientzia ebaluatu eta noranzkobikotasuna. 24. ekintza. Edukiontzien seinaleak eta gainerako informazio elementuak eta interfazeak. P1.5 Eredugarritasun, gardentasun, informazioaren eskuragarritasun, kontu-emate eta parte-hartzearen agenda 25. ekintza. Derrigorrezko protokoloak Arabako sektore publikoarentzat. 26. ekintza. Erabakiak hartzen laguntzeko agiriak argitaratzea. 27. ekintza. Planaren jarraipen eta ebaluazio parte hartzailea. P1.6 Ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko (enplegu berdea) jasangarritasun-agenda 28. ekintza. Ingurumen inpaktua zuzentzeko jardukerak. 29. ekintza. Ikuskapena, kontrola eta zaintza indartzea. 30. ekintza. Tokiko eta foru-poliziaren (miñolak) eta Ertzaintzaren laguntza. 31. ekintza. Tokiko zehapen araubidea gogortzea. 32. ekintza. Prestakuntza eta praktikak. 33. ekintza. Laneratze eta enplegu berdea sortzeko ekimenak sustatzea. 34. ekintza. Boluntariotza. 35. ekintza. Lankidetza egonkorra gizarte zerbitzuekin.


P2 Azpiegitura programa

P2.1 Dagoen azpiegitura hobetzeko agenda

- 36. ekintza.** Gaikako bilketa eredua erabat birdiseinatu eta berrezartzea.
- 37. ekintza.** Landa gune garbien sarea eredua birpentsatzea.
- 38. ekintza.** Puntu berde mugikorrek zerbitzu eredua birpentsatzea.
- 39. ekintza.** Garbigune eta berrerabilguneei aplikatu beharreko irizpideak koordinatzea.
- 40. ekintza.** Berrerabilguneak eta garbiguneak handitu, egokitu eta duin egitea.
- 41. ekintza.** Berrerabilguneetan eta garbiguneetako bigarren bizitzako ataletan eskainitako zerbitzuak hedabideetan iragarri eta zabaltzea.
- 42. ekintza.** Prozesua hobetzea TMBn (Tratamendu Mekaniko Biologikoa).
- 43. ekintza.** Errefusaren eta bioegonkortu soberakinaren aprobeitxamendu aurreraturako lerro berria.
- 44. ekintza.** TMB tasa urtero eguneratzea eta benetako kostuetara egokitzea.
- 45. ekintza.** Prozesua hobetzea ontzien plantan.
- 46. ekintza.** Isuri tasa urtero eguneratzea eta benetako kostuetara egokitzea.
- 47. ekintza.** Gardelegiko zaborteia bere ingurumen baimen integratuaren baldintzetara egokitzea.

P2.2 Azpiegitura berria sortzeko agenda

- 48. ekintza.** Garbigune berriak.
- 49. ekintza.** Hiriko/erdi-hiriko puntu garbi finkoak.
- 50. ekintza.** Hiriko berrerabilguneak.
- 51. ekintza.** Konpostaje plantak.
- 52. ekintza.** Bolumen handikoak guztiz desmuntatzeko planta.



P3 Lehentasuneko korronteen prebentzioa eta kudeaketa hobetzen laguntzeko beste neurri batzuk

P3.1 Hiri-hondakinen frakzio organikoa (elikagaien xahuketa barne)

- 53. **ekintza.** Autokonpostajea eta konpostaje komunitarioa.
- 54. **ekintza.** Elikagai hondakina prebenitzeko eta zatiki organikoa kudeatzeko tailerren programazio iraunkorra.
- 55. **ekintza.** Arabako elikagaiak banatzeko sektoreari eta barazkigintza eta lorezaintza hornidurak banatzeko sektorea erantzunkide egitea.
- 56. **ekintza.** Kontratuetan ingurumena sartzea (biohondakina, konpostaren erabierak, elikagaien xahutzea).
- 57. **ekintza.** Frakzio organikoaren gaikako bilketa ezartzen laguntzeko neurriak.
- 58. **ekintza.** Zaintza eta ikuskapena frakzio organikoaren gaikako bereizketarako.
- 59. **Ekintza.** Gaikako bilketa eredia erabat birdiseinatu eta berrezartzea frakzio organikoarentzat.
- 60. **ekintza.** Konpostaren merkaturatzea bultzatzea.

P3.2 Kantitate handitan sortutako hiri-hondakinak

- 61. **ekintza.** “Azken minutuko” elikagaien bilketa, Elikagaien Bankura eramateko.
- 62. **ekintza.** Prebenitzeko eta berrerabiltzen eta birziklatzen laguntzeko sektore eta enpresa planak.
- 63. **ekintza.** Ekoizle handientzako atez ateko gaikako bilketa.

P3.3 Tamaina handiko hondakinak eta hiri-hondakin berrerabilgarriak

- 64. **ekintza.** Hobekuntzak hondakin berrerabilgarrien eta bolumen handikoen gaikako bilketan.
- 65. **ekintza.** Garbiguneen gaitasuna hobetzea/handitzea berrerabiltzen laguntzeko.
- 66. **ekintza.** Berrerabilpena hobetzeko neurrien pakete integratua.
- 67. **ekintza.** Edukiontzi zuriaren ezarpena zabaltzea eta seinaleztapena hobetzea.
- 68. **ekintza.** Berrerabiltzeko prestatzeko tekniketako trebakuntza.

P3.4 Ontzi arinen hiri-hondakinak

- 69. **ekintza.** Gaineko eskalan bultzatzen diren GIIK ekimenak aztertzea (kronograma Eusko Jaurlaritzaren arloari buruzko txostenaren emaitzen arabera erabakiko da).
- 70. **ekintza.** Edukiontzi horia ondo erabiltzen dela zaindu eta ikuskatzea.
- 71. **ekintza.** Ecoembesi lotutakoei gehitutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak.

P3.5 Lehentasunezko beste korronte batzuk

- 72. **ekintza.** Bideragarritasunaren azterketa bioegonkortua balorizatzeke.
- 73. **ekintza.** Hildako animalien jatorriari buruzko diagnostikoa zabaltzea.
- 74. **ekintza.** Hildako animaliak sor ditzaketenen gaineko zaintza eta ikuskapena indartzea.
- 75. **ekintza.** Edukiontzi hori zabalduaren bideragarritasuna aztertzea (eta egokia bada, ezartzea).
- 76. **ekintza.** Inausketa eta lorezaintza hondakinen gaikako bilketarako baliabideak.
- 77. **ekintza.** Gaika bildutako inausketa eta lorezaintza hondakinak in-situ birrintzea.
- 78. **ekintza.** Frakzio arriskutsuak minimizatzeke kanpainak.
- 79. **ekintza.** Hiri-garbiketaren hondakinen (eta ekitaldietan sortutakoen) kudeaketa hobetzea.
- 80. **ekintza.** Etxeko olio erabiliak gaika biltzeko baliabideak.

16. **taula.** Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2017-2030 aldiko Planean aurreikusitako ekintzen enuntziatu laburtua.



BIZKAIA

P1: Behaketa aurreratuaren programa

A1: Hondakin-kudeaketako sisteman sortutako informazioa bildu, ustiatu eta argitaratzea.

A2: Hondakinen ezaugarriak finkatzea.

A3: Herritarren eta komertzioen pertzepzioari eta jokabideari buruzko informazioa etengabe eguneratzeko prozesuak.

A4: Erkatzen diren ereduaren benchmarking analisia.

A5: Informazioko autozerbitzu-unitate bat sortzea.

A6: Joera eta jardunbide egokiei buruzko txostenak egitea.

P2: Tokiko ekonomia zirkularraren programa traktorea

A7: Aurreikuspen-ereduetarako aktibo digitalen garapena sustatu eta babestea.

A8: Herritarren eta komertzio jokabide arduratsua sustatzen duten jarduketak diseinatu eta abiaraztea, toki-erakundeekin lankidetzan.

P3: Berrikuntza eta ekintzailetzako ekosistema sustatzeko programa

A9: Berrikuntza eta ekintzailetzako gune nagusietan egotea.

A10: Ideia berritzaileen identifikazioa eta hautaketa (scouting), hondakin kudeaketari dagokionez, eta haiekin bat datozen dirulaguntza eta laguntzen eskema.

P4: Erakundeen arteko koordinazio programa

A11: Eragiketa-koordinazioa: Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan Integralaren (BHPKPI) helburuak lortzea bultzatzen duen lantalde bat sustatzea.

A12: Koordinazio estrategikoa: Integraziorako eta udal-jardunerako eredua.

P5: Sentsibilizazio-programa

A13: Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainen koordinazioa.

P6: Aztarna berdea kudeatzeko programa

A14: Karbono-aztarna txikiagoko flota apurka-apurka egokitzea.

A15: Karbono-aztarna txikiagoko instalazioak apurka-apurka egokitzea.

P7: Kudeaketa integratuko programa

A16: Klima-aldaketa arintzea, hari egokitzea eta erresilientzia.

A17: Ingurumenaren zaintza eta pertsonen osasuna.

A18: Genero-ikuspegia.

P8: Hondakinen prebentzioaren kudeaketa plana

A19: Erosketa publiko berdearen jarduketa.

A20: Kontsumo arduratsuaren arloko jarduketak.

A21: Elikagaien aprobetxamendua sustatzeko jarduketak.

A22: Enpresei eta/edo enpresa-elkarteei laguntzea hondakin-prebentzioaren arloan enpresa-planak egiteko.

A23: Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak.

A24: Jasangarritasuna sustatzea BFaren eguneroko lanean.

P9: Berrerabilpenari balioa emateko programa

A25: Bigarren bizi-tza duten artikulua merkaturatzeko sustapena eta lankidetzak.

A26: Hondakin-bilketaren kudeaketa hobetzea garbiguneetan berrerabiltzeko.

A27: Garbigune mugikor gehiago abiaraztea eta zerbitzu lagungarriak jartzea aztertzea.

A28: Edukiontzia zuriaren bilketa-zerbitzua eta ondorengo tratamendua indartzea.

A29: Arropa, altzariak eta liburuak emateko sentsibilizazio-kanpaina.

P10: Gaikako bilketaren programa A30: Papera-kartoia, beirak, ehunak, TEEH, sukaldaritzako olio erabilia eta etxeko hondakin arriskutsuak hondakin zatikiak biltzeko zerbitzua indartzea. A31: BGZO biltzeko zerbitzua indartzea. A32: Ontzi arinak biltzeko zerbitzua indartzea. A33: Sentsibilizazio-kanpaina espezifikoak garatzea, hondakin zatikiak behar bezala bereizteko, Europar Batasunak ezarritako helburuak beteko direla bermatu ahal izateko. P11: Birziklapena bultzatzeko programa A34: GBZOaren tratamendurako azpiegiturak hondakinen sorreraren eboluziora egokitzea. A35: Etxeko konpostatzea sustatzea. A36: A motako konpostaren merkataritza-irteera bilatzea. A37: Garbiguneetatik datozen eta birziklatu behar diren materialen trazabilitatea hobetzea. A38: Gainerakoa zatikiaren material birziklagarriak berreskuratzeke dauden teknikarik onenak ezartzea. A39: Industria 4.0 egokitzea eta teknologikoki garatzea ontzien tratamenduko azpiegiturretan.	P12: Balorizazio materialaren programa A40: Gainerakoa zatikiaren azpiproduktuen balorizazio materialerako alternatibak bilatzea. A41: BESen tratamendurako eta balorizazio materialerako instalazio bat sustatzea. A42: EKHen balorizaziotik eratortzen diren materialen erabilera sustatzea. P13: Ezabaketaren minimizazio programa A43: Jata eta Artigasko zabortegeiak zigilatzeke eragiketekin jarraitzea. A44: Kontingentziako azpiegiturretan isurketa instalazioak prestatzea eta egokitzea. A45: Isurketa kontingenteen kalitate eta trazabilitatearen kontrol sistema bat ezartzea. A46: Bizkaiko hondartza batzuetan eskuzko garbiketa-aldiak ezartzea.
---	--

17. taula. Bizkaiko Toki Eskumeneke Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plan Integralean aurreikusitako ekintzak.





GIPUZKOA

Prebentzio Programa

PRE-1: Sorkuntzagatik ordainketa-politikak bultzatzea.

PRE-2: Gipuzkoako moda jasangarriaren klusterra bultzatzea.

PRE-3: Etxeetan eta dendetan kontsumo arduratsua sustatzea, eta, horretarako, bertako produktuak, konponketa, trukea eta bigarren eskuko gauzak bultzatzea.

PRE-4: GFAn erosketa berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktu eta materialak txerta daitezen: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak.

PRE-5: Ekodiseinua bultzatzea.

PRE-6: GFaren eraikin publikoetan ingurumena kudeatzeko sistemak bultzatzea: sortutako hondakinak minimizatzea eta kudeatzea.

PRE-7: Prebentziorako, gaikako bilketarako, berrerabiltzeko prestaketarako eta birziklapenerako laguntzak emateko foru-programa mantentzea.

PRE-8: Gazteei I+G+Brako bekak emateko foru-programa mantentzea.

PRE-9: Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren bidez «Azken minutua» programa indartzea.

PRE-10: Herritarrek sentsibilizatzeko programa: etxeetan eta jatetxeetan elikagaiak xahu daitezen prebenitzea (Gourmet Bag).

PRE-11: Sare bat sustatzea ostalaritzan, jatetxeetan, catering-zerbitzuetan eta bestelako hondakin-sortzaile handietan sortutako elikagai-soberakinak bildu eta banatzeko.

PRE-12: Elikagai-soberakinak sortzeko eta prebenitzeko adierazleen segimendua egitea.

PRE-13: Sukaldaritzako hezkuntza-moduluetan prebentzioko eta gaikako bilketako irizpideak txertatzea eta zabaltzea.

PRE-14: Erosketa-jardunbide egokiak sustatzen dituzten herritarrek sentsibilizatzeko kanpainak egitea, ontzien hondakin gutxiago sor daitezen.

PRE-15: Herritarren artean oro har txorrotako uraren kontsumoa sustatzea.

PRE-16: Ur, sagardo eta ardo ontziratuaren sektoreetan Itzultzeko botilen erabilera sustatzea.

PRE-17: Sektore komertzialean ontzi-hondakin gutxiago sortzeko salmenta-jardunbide egokiak sustatzea.

PRE-18: Herritarrek etxeko hondakin arriskutsuak sortzearen inguruan sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea.

PRE-19: Gipuzkoako sektore komertzial eta industrialetan hondakinak prebenitzeko zerga-pizgarrien azterlana egitea.

PRE-20: Sakabanatutako zaborra prebenitzea eta murriztea.

PRE-21: Birziklapenaren klusterrean etxeok ez diren hondakinak sortzen dituztenekin hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzearen inguruko esperientzia pilotuak egitea.

PRE-22: Birziklatutako eta berrerabilitako produktuen sarrera sustatzea, laneko eta zerbitzuetako kontratu publikoetan nahitaezko ehuneko bat ezarrita.



Kudeaketa Programa

BIL-1: Hondakinak gaika biltzeko eredu eta sistema benetan eraginkor eta jasangarriak etengabe sustatzen eta hobetzen laguntzea mankomunitateei.

BIL-2: Mankomunitateekin batera garbiguneak egoki daitezen, hondakin-korronte guztiak onartzeko irizpideak homogeneiza daitezen eta garbiguneak erabil daitezen sustatzea.

BIL-3: Transferentzia-instalazioekin erlazioen beharrak aztertzea.

BIL-4: Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.

BERRP-1: AEEH, tamaina handikoak, ehungaiak eta bestelakoak saltzeko, trukatzeko, konpontzeko eta berriro manufacturatzeko sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea.

BERRP-2: Mankomunitateekin batera, garbiguneak AEEHei buruzko 110/2015 Errege Dekretura egoki daitezen sustatzea.

BERRP-3: Garbigune eta minigarbiguneen sarea etengabe hobetzen laguntzea, berrerabiltzeko prestatzea sustatzeko.

BERRP-4: Berrerabiltzeko prestatzeko zentrozen beharrak aztertzea.

BERRP-5: Kontsumitzailearentzako informazioa hobetzea eta produktu berrerabilgarria merkatura dadin sustatzea.

BIR-1: Biometanizazio-/konpostaje-instalazioak kalitatea ziurtatzeko sistemai jarraikiz ustia daitezen eta merkatura zuzendutako produktuak sor ditzaten sustatzea.

BIR-2: Konpostaje- eta biometanizazio-instalazioetako beharrak aztertzea.

BIR-3: Ontziak bereizteko Legazpiko eta Urnietako egungo instalazioen beharrak aztertzea. Zerbitzua handitzea hala badagokio, eta hondakinen kudeaketan gertutasunaren printzipioa bultzatzea.

BIR-4: Obra publikoan agregakin birziklatuak erabil daitezen sustatzea.

BIR-5: Gipuzkoako birziklapenaren klusterra sustatzea (GK Recycling), ekonomia zirkularra bultzatzeko.

BIR-6: Esperientzia arrakastatsuak trukatzeko, identifikatzeko eta hedatzeko Gipuzkoako birziklapen-klusterraren bidez.

BAL-1: I+G+B bultzatzea: ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako produktu berriei aplikatzea.

BAL-2: Gipuzkoako Ingurumen Gunearen segimendu-azterlanak egitea.



Desegitea Optimizatzeari buruzko Programa

DEUS-1: Bigarren mailako hiri-hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea.

DEUS-2: Hondakindegira eramandako bigarren mailako hiri-hondakinen kalitatea eta trazabilitatea kontrolatzeko sistema eraginkor bat ezartzea.

Behatoki Programa

BEH-1: Karakterizazioak egitea, eta tokiko erakundeek eta altan dauden hondakinen azpiegituren kudeatzaileek egin dituzten eta interesgarriak izan daitezkeen karakterizazio guztiak biltzea.

BEH-2: Gipuzkoako hondakinak sortzeko eta gaika biltzeko datu-baseak kudeatzeko sistemak hobetzea, mantentzea eta ustiatzea, eta haietako irizpideak bateratzea.

BEH-3: Hondakinen sortzeari eta gaika biltzeari buruzko sareko edukiak eguneratzea eta aldizkako txostenak argitaratzea.

BEH-4: Behatokiaren Mahaia guztiz garatzea kontsulta eta aholkularitzako organo tekniko gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea interesa duten eraileekin.

BEH-5: 2019-2030 Hondakin Planaren segimendu-txostenak idaztea.

BEH-6: 2019-2030 Hondakin Planaren informazio-, segimendu- eta ebaluazio-batzordea martxan jartzea.

BEH-7: Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako informazio-, sentsibilizazio- eta komunikazio-plan bat prestatzea eta garatzea.

BEH-8: Hondakinen Prebentzioaren Europar Astea.

BEH-9: Behatokiaren bidez, udalerrri batzuetan izandako esperientziak identifikatzea eta ezagutaraztea.

BEH-10: OCRUrekin koordinatzea.

18. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldiko Plan Orokorrean aurreikusitako ekintzen enuntziatu laburtua.



VII. ERANSKINA: FORU-ALDUNDIEK ZENBATETSITAKO AURREKONTUAK



Urtea	Programak			Guztira (€)
	P1. Gobernamendu eta neurri estrategikoetako Programa	P2. Azpiegitura Programa	P3. Lehentasunezko korronteen prebentzioa eta kudeaketa hobetzen laguntzeko beste neurri batzuk	
2017-18	603.000	2.000.000	330.000	2.933.000
2019	1.304.000	4.440.000	525.000	6.269.000
2020	1.544.000	12.300.000	1.420.000	15.264.000
2021	1.110.000	14.350.000	964.000	16.424.000
2022	990.000	5.430.000	1.020.000	7.440.000
2023	1.115.000	920.000	311.000	2.346.000
2024	1.020.000	270.000	227.000	1.517.000
2025	810.000	220.000	187.000	1.217.000
2026	823.000	4.770.000	338.000	5.931.000
2027	783.000	245.000	363.000	1.391.000
2028	853.000	195.000	338.000	1.386.000
2029	908.000	245.000	338.000	1.491.000
2030	768.000	245.000	363.000	1.376.000
Guztira	12.631.000	45.630.000	6.724.000	64.985.000
	% 20	% 70	% 10	% 100

19. taula. Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2017-2030 aldiko Planean aurreikusitako aurrekontua, urteen eta programen arabera.



Programak	Gastu bakarra	Urtean banatu beharreko gastua	Inbertsioa	Guztira (€)
P1: Behaketa aurreratua	590.000	1.485.000	0	2.075.000
P2: Tokiko ekonomia zirkularra	220.000	12.690.000	0	12.910.000
P3: Berrikuntza eta ekintzailetzako ekosistemaren sustapena	0	3.870.000	0	3.870.000
P4: Erakundearteko koordinazioa	120.000	90.000	0	210.000
P5: Sentsibilizazioa	0	0	0	0
P6: Aztarna berdearen kudeaketa	90.000	180.000	2.000.000	2.270.000
P7: Kudeaketa integratua	0	675.000	0	675.000
P8: Hondakinen prebentzioaren kudeaketa plana	100.000	5.580.000	0	5.680.000
P9: Berrerabilpena balioan jartzea	60.000	2.610.000	4.400.000	7.070.000
P10: Gaikako bilketa	0	4.050.000	4.800.000	8.850.000
P11: Birziklapena bultzatzea	0	720.000	18.500.000	19.220.000
P12: Balorizazio materiala	0	0	7.000.000	7.000.000
P13: Ezabaketaren minimizazioa	0	270.000	14.500.000	14.770.000
Guztira	1.180.000	32.220.000	51.200.000	84.600.000
	% 1	% 38	% 61	% 100

20. taula. Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2024-2030 aldiko Planean aurreikusitako aurrekontua, programen eta gastu motaren arabera.



Urtea	Programak							Guztira (€)
	Prebentzioa	Gaikako bilketa	Berrer. prestaketa	Birziklatzea	Balorizazioa (mat. eta energ.)	Desegi. optim.	Behatokia	
2019	1.665.000	120.000	110.000	360.000	277.800	24.400	243.000	2.800.200
2020	1.690.000	110.000	200.000	380.000	434.000	20.000	274.000	3.108.000
2021	1.640.000	110.000	100.000	370.000	434.000	20.000	223.000	2.897.000
2022	1.690.000	30.000	90.000	380.000	434.000	20.000	314.000	2.958.000
2023	1.640.000	90.000	30.000	370.000	434.000	20.000	223.000	2.807.000
2024	1.690.000	60.000	30.000	440.000	386.000	20.000	274.000	2.900.000
2025	1.640.000	30.000	30.000	370.000	386.000	20.000	289.000	2.765.000
2026	1.690.000	30.000	30.000	380.000	386.000	20.000	208.000	2.744.000
2027	1.640.000	90.000	30.000	370.000	386.000	20.000	289.000	2.825.000
2028	1.690.000	30.000	30.000	380.000	268.000	20.000	208.000	2.626.000
2029	1.640.000	30.000	30.000	370.000	268.000	20.000	289.000	2.647.000
2030	1.690.000	30.000	30.000	380.000	60.000	20.000	314.000	2.524.000
Guztira	20.005.000	760.000	740.000	4.550.000	4.153.800	244.400	3.148.000	33.601.200
	% 60	% 2	% 2	% 14	% 12	% 1	% 9	% 100

21. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldiko Plan Orokorrean aurreikusitako aurrekontua, urteen eta programen arabera.



EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA 2025

UDAL-HONDAKINAK

